

# 2020ko EKINTZEN BILDUMA

© Polo Garat - Zapat(h)ari egitasmoa, Hazparne, 2019



|                                                                                                |           |
|------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>ZUZENDARIAREN HITZA.....</b>                                                                | <b>3</b>  |
| <b>EUSKAL KULTUR ERAKUNDEKO BARNE ANTOLAKETA.....</b>                                          | <b>4</b>  |
| <b>1. ONDAREA ETA SORKUNTZA LOTU.....</b>                                                      | <b>6</b>  |
| <b>1.1. Kultura ondare immaterialari buruzko ikerketa eta ezagutza aberastu.....</b>           | <b>6</b>  |
| 1.1.1. Kultura ondare immaterialaren bilketa eta tratamendua.....                              | 6         |
| 1.1.2. Ekitaldi zientifikoen antolaketa.....                                                   | 7         |
| <b>1.2. Ikerketa eta sorkuntza artistikoa uztartu.....</b>                                     | <b>8</b>  |
| 1.2.1. <i>Zapat(h)ari</i> proiektuaren gauzatzea.....                                          | 8         |
| <b>1.3. Mediazio ekintzak bultzatu.....</b>                                                    | <b>9</b>  |
| 1.3.1. Ikerketen eta gogoeten hedapena eta balorizazioa.....                                   | 9         |
| 1.3.2. Ondare datubaseetarako sarbideen erraztea.....                                          | 11        |
| <b>2. EUSKAL KULTURA TRANSMITITU ETA HEDATU.....</b>                                           | <b>15</b> |
| <b>2.1. Proiektuak sustatu bitartekaritza kulturalaren zerbitzuko.....</b>                     | <b>15</b> |
| 2.1.1. Sentsibilizazio tresnen eta ekintzen gauzatzea.....                                     | 15        |
| 2.1.2. Lan taldeen animazioa.....                                                              | 17        |
| <b>2.2. Kultura politiketan euskal kulturaren egituraketa eta garapena lagundu.....</b>        | <b>17</b> |
| 2.2.1. Euskal kulturaren integrazioa kultura politika publikoetan.....                         | 17        |
| 2.2.2. Kultura alor batzuen egituraketari eta garapenari laguntza.....                         | 20        |
| <b>2.3. Tokiko kultur elkarteei laguntza eta aholkuak eman.....</b>                            | <b>23</b> |
| 2.3.1. Beharretara egokituak diren laguntzen bultzatzea.....                                   | 23        |
| 2.3.2. Tokiko elkarteen proiektuetarako laguntza.....                                          | 25        |
| <b>3. EUSKAL KULTURA HEDATU.....</b>                                                           | <b>38</b> |
| <b>3.1. Lehentasuna eman partaidetza lanari eta gaitasunen sarean ezartzeari.....</b>          | <b>38</b> |
| 3.1.1. Lankidetzen azkartzea labelizatuak diren lurraldeko egiturekin.....                     | 38        |
| 3.1.2. Partaidetzen emendaketa eta segipena Akitania Berrian.....                              | 39        |
| <b>3.2. Kultura trukaketak lagundu.....</b>                                                    | <b>39</b> |
| 3.2.1. Mugaz gaineko kultura lankidetzaren segipena.....                                       | 39        |
| 3.2.2. Nazioarteko trukaketen garatzea: SOKA-ren bertsio « transatlantikoa »-ren hedapena..... | 41        |
| <b>3.3. Kultura aktualitatea baloratu tresna numerikoen bidez.....</b>                         | <b>42</b> |
| 3.3.1. Kultura aktualitatearen balorapena.....                                                 | 42        |
| <b>EUSKAL KULTUR ERAKUNDEKO ELKARTE-KIDEEN ZERRENDA 2020AN.....</b>                            | <b>44</b> |



Pantxoa ETCHEGOIN

*Euskal kultur erakundeko zuzendaria 1997tik 2021era*

*« Etorri zait alde egiteko tenorea eta bizi berri baten gozatzeko nahikundea.*

*Esker mila zuen egitasmoak eta pasioak partekaturik Euskal kultur erakundeko zuzendari izan naizen 24 urte hauetan. Zuekilako harremanak guziz aberasgarriak izan dira, nola lanean, hala ene eguneroko bizian.*

*Esker mila euskal kulturaren biziarazteko, arraberritzeko egin duzuenarentzat, konfiantzan, elkarrenganako errespetuan, eta trukaketa eraikitzaileen bitartez. Kurutzatuko zaituztet oraino bidenabar, hor gaindi, edo bidaide izanen gara berdin. Dena den, bidaia on.*

*Atxikimenduz eta estimuz ».*

# EUSKAL KULTUR ERAKUNDEKO BARNE ANTOLAKETA 2020AN

## BILTZAR NAGUSIA

165 elkarte-kidek osatzen dute eta gainera barne dira ere legezko kideak eta pertsonalitate kalifikatuak.

## BULEGOA

|                         |                            |
|-------------------------|----------------------------|
| <b>Lehendakaria</b>     | Mikel ERRAMOUSPÉ jauna     |
| <b>Lehendakariordea</b> | Pierre-Paul BERZAITZ jauna |
| <b>Idazkaria</b>        | Juhane DASCON jauna        |
| <b>Diruzaina</b>        | Peio SOULÉ jauna           |

## ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

### Instituzioen taldea

#### **Estadoaren ordezkariak**

Éric SPITZ jauna, Pirinio Atlantikoetako prefeta  
Hervé JONATHAN jauna, Baionako suprefeta  
Arnaud LITTARDI jauna, DRAC-eko zuzendaria

#### **Akitania Berria Eskualdearen ordezkariak**

Charline CLAVEAU anderea, eskualdeko kontseilaria  
Frédérique ESPAGNAC anderea, eskualdeko kontseilaria  
*Ordezkoak:*  
Émilie DUTOYA anderea, eskualdeko kontseilaria  
Alice LEICIAGUEÇAHAR anderea, eskualdeko kontseilaria

#### **Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren ordezkariak**

Max BRISSON jauna, departamenduko kontseilaria  
Bénédicte LUBERRIAGA anderea, departamenduko kontseilaria

#### **Euskal Hirigune Elkargoaren ordezkariak**

*Iraila arte:*

Beñat ARRABIT jauna, hizkuntza politikarako lehendakariordea (euskara eta gaskoia)

Bruno CARRÈRE jauna, kultura partaidetzak, arte heziketa eta kultur ondarea sailako ordezkari kontseilaria

*Urritik goiti:*

Antton CURUTCHARRY jauna, hizkuntza politika, kultura eta erkidegoko kultura ekipamenduetarako lehendakariordea

Joseba ERREMUNDEGUY jauna, mugaz gaineko, Europako zein nazioarteko lankidetzetarako ordezkari kontseilaria

#### **Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria**

Aitziber ATORRASAGASTI anderea, kultura zuzendaria

#### **Nafarroako Gobernuaren ordezkaria**

Mikel ARREGI jauna, hizkuntza politikaren zuzendaria

## Kultura eragileen taldea

### ***Euskal kultura eragileen ordezkariak***

Mikel ERRAMOUSPÉ jauna, lehendakaria  
Pierre-Paul BERZAITZ jauna, lehendakariordea  
Juhane DASCON jauna, idazkaria  
Peio SOULÉ jauna, diruzaina  
Agnès AGUER anderea  
Patxi AMULET jauna  
Julien CORBINEAU jauna  
Jean-Baptiste COYOS jauna  
Katixa DOLHARÉ-CALDUMBIDE anderea  
Xabi ETCHEVERRY jauna  
Filipe LESGOURGUES jauna

### ***Gomitatuak***

Erramun BACHOC jauna, hizkuntza aholkularia  
Bernadette SOULÉ anderea, EEP-ko zuzendaria

## KONDUETARAKO KOMISARIOA

Pierre ARANGOITS jauna

## LANTALDEA

### **Zuzendaritza & administrazioa**

*Zuzendaria*

*Administrazioa, konduak eta giza-baliabideak*

Pantxoa ETCHEGOIN jauna  
Elixabet MORTALENA anderea

### **Kultura egitasmoak eta bitartekaritza saila**

*Egitasmo arduraduna « Ikusgarrigintza,  
zinema eta mugaz gaineko proiektuak »*

*Kultura bitartekaritzaren arduraduna*

*geldialdian), Maitane HERNANDEZ-EYHERAMONHO andereak ordezkaturik*

Frank SUAREZ jauna  
Maia ETCHANDY anderea (*burasotasun*)

### **Ondarea & euskal Etnopoloa saila**

*Etnologoa eta Etnopoloaren koordinatzailea*

*Ondarearen balorapenaren arduraduna (lanaldi partziala)*

*Etnopoloaren misio karguduna (2 egun astean)*

Terexa LEKUMBERRI anderea  
Maite DELIART anderea  
Mathilde BAQUÉ anderea

### **Numerikoa saila**

*Estrategia & egitasmo numerikoen arduraduna*

*Internet egitasmoentzako itzultzailea & integratzailea*

*Multimedia erredaktorea (lanaldi partziala)*

Jakes LARRE jauna  
Frederik BERRUET jauna  
Marion LASTIRI anderea

# 1. ONDAREA ETA SORKUNTZA LOTU

## 1.1. Kultura ondare immaterialari buruzko ikerketa eta ezagutza aberastu

### 1.1.1. Kultura ondare immaterialaren bilketa eta tratamendua

#### ➤ *Eleketa programaren segipena*

##### **Ahozko memoriaren bilketa**

Ahozko memorioaren bilketak eztitu behar izan du 2020an Covid-aren gatik. Halere, bederatzi lekuko filmatuak izan dira, horietarik bi Lapurdin, zazpi Nafarroa-Beherean. Gizon-emazte banaketa aski orekatua da (lau emazte, bost gizon). Lehen lekukoa 2020ko urtarrilan filmatua izan da (Beñat Oyharçabal, Uztaritze), beste zortziak bi konfinamenduen artean: Antton Hirigoyen (Sara), Laurent Carricart (Lakarra), Frantxo Cachernaut (Jatsu), Maddi Gorostiague (Lasa Ontzorone), Félicie Changala (Anhauze), Kattin Cachernaut (Bustintze), Maddi Landaburu (Aintzile), eta Sauveur Tristant (Irulegi). Aurten falta diren 19 lekukoak 2021-2022an filmatuak izanen dira.

2019az geroz ahozko bilketa lurraldeko hutsuneetan bereziki eginga da. Ondorioz, sortuak izan diren datubaseak, izan Nafarroa-Behere (12, 13 eta 14 AV), ala Lapurdi (15 AV) probintzientzat, aberastu dira lekukotasunak bildu arau.

##### **Obralaritzaren segipena eta tratamendu intelektuala**

Pirinio Atlantikoetako Artxibo zerbitzuaren babespean eramana dago bilketa programa eta Euskal kultur erakundearen obralaritzaren segipena. Segipen hau 2018az geroz Artxibo zerbitzuaren baitako arrazoiengatik geldituta zagona, ber-abiatu da 2020ko udazkenean. Tere Garcia-Larrache artxibista izendatua izan da lanaren segitzeko hemendik aitzina.

#### ➤ *Ipar Euskal Herriko soinu et ikus-entzunezko artxibo zaharren tratamendua: Foulon funtsa*

EKE-k, 2012az geroztik, Departamenduak numerizatu dituen funts zaharren inbentario lana egiten du (deskribapena, sailkapena sortutako datubasean). 2020an bururatu da 2019an hasia izan zen Raymond Foulon-en (Raymond François izengoitiz) artxiboen tratamendua (154 ordu).

#### ➤ *Inbentario-fitxen plazaratzea*

Lehenago egin inbentario lana osatzeko (2016 eta 2018 urteen artean dantza praktikei lotuak diren bost inbentario-fitxa osatu zituen), EKE-k lau inbentario-fitxa berri ekoiztu ditu 2019 ta 2020an, neguko bestei buruz: Trufania Donibane Lohizunen, Santibate-Libertimendua, Idi gizenak Baionan, Zarpantzar. Fitxa horiek plazaratuak izan dira 2020ko martxo bukaeran.

Thierry Truffaut-k (Euskal Herriko besta eta dantza tradizioen antropologo aditua, Lapurtarrak, Herri Soinu, Lauburu eta Etniker Iparralde elkarten kidea), eta Terexa Lekumberri-k (antropologoa eta ondare immaterialaren arduraduna EKE-n) idatzi dituzte. Ikertzaile eta aditu batzuek lagundu dituzte, ekarpen idatzi bat eginez, edo haien ikerlanak EKE-ren esku ezarritik. Eskertzekoak dira ere ohidura horiek biziarazten dituztenak eta EKE-k eraman landalanean parte hartzea erabaki dutenak.

## 1.1.2. Ekitaldi zientifikoaren antolaketa

### ➤ **Etnopoloentopaketaren antolaketa: «Ondareak eta sorkuntza: etnologiak polinizaturik» lemapean**

Euskal Etnopoloak (Euskal kultur erakundeak eta Gizarte Zientzietako Goi Mailako Ikasketen Eskolak (EHES) osatzen dutena) harrera ederra egin diete, 2020ko martxoaren 9 ta 10an, Frantziako guziko Etnopolei (hamaika orotara gaur egun), «Ondareak eta sorkuntza: etnologiak polinizaturik» lemapean. Martxoaren 9an, astelehen arratsaldearekin, hasi dira topaketak Baionako Euskal Museoan. Lehen arratsalde hori bakarrik Etnopoloen sarea osatzen duten egiturentzat antolatua bazen ere, martxoaren 10eko eguna publikoari idekia zen. Publiko zabala eta interesatua bildu zen beraz, etnologiaren eta praktika artistikoen arteko harremanei dedikatu egun hartan.

### ➤ **«Artxiboak eta Sorkuntza» kolokioaren antolaketa**

Euskal Etnopoloak artxiboen erabilpenak orokorki sortzen dituen hanbat galdera aztertu nahi izan ditu. Grabaketa bat, edo edozein artxibo, sorkuntza gai bilaka daiteke? Sorkuntza gai izateko artxiboaren testuingurua ezagutu eta kondutan hartu behar ote da? Ala esperientzia artistikoak aske behar du? Errespetatu behar liratekeen artxiboaren etikarik badea?

2020ko lehen sei ilabetetan, lantalde bat arizan da kolokio horren prestatzen. Gaia zehaztua izan zen eta parte-hartzaile batzuek aurreikusitako eta kontaktatuak (horietan besteak beste Lars-Christian Koch, Berlingo etnologia Museoko fonotekaren zuzendaria).

Baina koronabirusak ekitaldi horren gibelatzera bortxatu gaitu. 2021eko ekainean iraganen da (2020ko ekainaren orde).

### ➤ **Euskal Etnopoloaren ilabeteko mintegiaren antolaketa**

Hirugarren urteko, EKE-k, EHES-k eta Etnopoloaren partaideek mintzaldi ziklo bat antolatua zuten. Zazpi hitzordu aurreikusitak ziren 2020an, bi iragan ahal izan dira, besteak 2021era pusatuak izan dira.

- Urtarrilaren 23an – *Txalaparta: musika praktika baten ikerketa kritikoa*, Argibel Euba Ugarteren eskutik. Euskal kulturaren eta musikaren ikur indartsu bat bilakatu da txalaparta azken hamarkadetan. Argibel Euba Ugarte-k haren inguruko azterketa osatua eta kritikoa eskaintzea zuen helburu hitzaldi honetan, dimentsio historiko, sozial eta kulturalak azpimarratuz.

- Otsailaren 27an – *Euskaldunak eta Amerindianoak Kanadan XVI. mendean*, Laurier Turgeon-  
en eskutik. Mintzaldi honetan, XVI. mende osoan Euskaldunek Kanadan ukan duten aktibitate handia (bakalau arratza, balea ihizia, larruen trafikoa Amerindianoekin) eta honen bilakaera aipatu zuen.

Covid-19 birusa dela eta, beste bost mintzaldiak (2020ko martxo, apiril, maiatz, azaro eta abendokoak) 2021era gibelatuak izan dira.

## 1.2. Ikerketa eta sorkuntza artistikoa uztartu

### 1.2.1. Zapat(h)ari proiektuaren gauzatzea

2007an, EKE adinetako jendeen lekukotasunen biltzen hasi da (*Eleketa* programa). Laupabost urteren buruan (2012), bilketa honek gogoeta garrantzitsu bat sortu du: biltzen den memoria honek, ondare honek, zer nolako lotura du euskal sorkuntza garaikidearekin? Gogoeta hau barnatu dute urtez urte EKE-k eta EHESS-ek. Ondorioz, ondarearen eta sorkuntzaren arteko harremana euskal Etnopoloaren ikergai nagusia bilakatu da. *Eleketa* funtsa interes handiko baliabide bat bilakatu denez bai ikertzaileentzat bai sortzaileentzat, 2019-2020an Hazparneko zapatagintzaren inguruko egonaldi partekatu bati buruz joatea pentsatua izan zen, 2011n bildu lekukotasun batzuetatik abiatuz.

Euskal etnopolok eta Clarenza kultur zentroak perspektiba horretan lan egin dute elkarrekin, Hazparneko zapataren industriaren inguruan zientziak eta artea uztartuz.

Abentura honen xedea, iragan industrial horren eta gaurko Hazparneren arteko erresonantziak entzutea, atzokoaren eta gaurkoaren arteko ezin ikusizko harien identifikatzea zen. Hortarako hiru hurbilketa ezberdin eta osagarri gurutatu nahi izan dira:

- Aitzpea Leizaola antropologoak bildutako lekukotasun horiek ikertu eta garai garrantzitsu harek gaur egungo Hazparnen utzi dituen aztarnak aztertu ditu. Iragan hori nola integratzen ote da orainaldian eta zenbateraino moldatzen ote du?
- Polo Garat argazkilariak zapatagintzak Hazparnen utzi ondare materiala eta sinbolikoa argazkitan hartu du.
- Hazpandarrak ere gaiari interesatu dira. Antropologoarekin eta argazkilariarekin batera, dotzena bat herritar bost aldiz bildu dira urtarila-urria artean iraganaz zuzten sendimendu eta interpretazio desberdinetaz solastatzeko. Leku historiko batzuetan ere ibili dira: taneria xahar, zapata lantegi, langile bizitegi eta ostatu.

Egonaldi hori bi hitzordu nagusiek markatu beharra zuten (2019ko neguan, 2020ko neguan).

Lehena iragan ahal izan da, 2019ko abenduaren 19an, ortzirale arratsez, Hazparneko Les Tilleuls ostatuan. Gaualdi horretan, Aitzpea Leizaola-k *Eleketa* programaren baitan Hazparnen bildu lekukotasunen lehen irakurketa antropologiko bat eskaini du *Hazparneko zapatagintza ahozko lekukotasunen bidez* izeneko mintzaldi batekin. Denbora berean, Polo Garat argazkilariak egin lehen argazkietatik batzu erakutsi ditu.

Gaualdi honek hasiera eman dio abenduan hasi eta 2020an Hazparneko biztanleekin garatu den proiektu parte hartzaileari. Proiektuaren bigarren fase hau 2020ko abendoko asteburu batez bururatzea pentsatua zen Aitzpea Leizaola-ren mintzaldi eta Polo Garat-en argazki erakusketa batekin iragan industrialaren arrastoak gaurko hazpandar jendartean gaiaren inguruan. Ondotik, ibilaldi musikatu eta dantzatu batekin, Hazparneko toki sinboliko batzuetan geldialdiak eginez (zapata lantegiak, ostatuak). Covid-aren gatik, bigarren hitzordu handi hau gibelatu behar izan da 2021era.



## 1.3. Mediazio ekintzak bultzatu

### 1.3.1. Ikerketen eta gogoeten hedapena eta balorizazioa

#### ➤ « *Eleketa, ahozko oroimenak* » erakusketa ibiltariaren sortzea

EKE-k Eleketa fondoaren aberastasuna ezagutarazteko xedea du. Hori dela eta, «*Eleketa, ahozko oroimenak*» multimedia erakusketa sortu du. 80 metro karratuko instalazio elebidun eta interaktibo honen asmoa Euskal Hirigune Elkargoko lurralde bakoitzean 2007tik honera bildu lekukotasunen hautaketa bat eskaintzea da.

Erakusketa ibiltari hori Hazparneko Pierre Espil Mediatekan aurkeztua izan da lehen aldiz 2020ko irailaren 25etik 2021eko urtarrilaren 30era. Publikoak Hazparnen, baina ere inguruko herrietan hamar bat urtez bildu lekukotasun zatiak deskubritu ahal izan ditu (68 lekuko, 200 bideo zati baino gehiago).

Aipatuak diren gaien artean: zapatagintza, mugimendu sozio-kulturalak, politika eta erlisionea, bizi moduak, baserriko giroa, erritualak... Kontakizun horiek lekukoek utzi dizkiguten irudi eta objektu batzuekin ilustratu ditugu.

700 bisitarik ukan dute lehen aurkezpen horretan parte hartzeko aukera.

Aipatzekoa da ere, EKE-k Hazparneko lurraldeko eskolei «*Eleketa*» erakusketaren bisitak proposatu dizkie, bi misio kargudunek eramanak.

Egokitzen ahal ziren bisita hauek, ordu bete/t'erdiko iraupenarekin honela iragan dira: erakusketaren afixaren analisia bat (irudi eta testoa azterketa, hiztegiaren ikerketa), lekukotasunen begiztatzea eta galde sorta baten betetzea, zapatagintza gaiari buruzko fokus bat, Hazparnen ekoiztutako hamasei zapaten ezagutza, zapataren hiztegiaren lanketa.

Bisitaren ondotik, galde sorta eta bere zuzenketa erakasleei emanak izan dira. Horrez gain erakasleak mintzoak.eus gunearen bidez bisita luzatzea gomituak izan dira.

Osasun egoeragatik, bisita batzu 2021eko urtarrilera gibelatuak izan badira, beste batzu osoki ezetatu behar izan ditugu.

- Erakusketa bisitatu duten ikasle kopurua: 138
- Ikastetxeak: Ursuya kolegioa, Sainte-Thérèse eskola, Ezkia ikastola
- Klaseak: CE2, CM1, CM2, 5., 4., 3.
- Bisitak euskaraz: 3
- Bisitak frantsesez: 4

Azpimarratzekoa da bideo-pasarteak beren jatorrizko transkripzioarekin eta itzulpenarekin (euskaraz edo frantsesez) aurkeztuak izanen direla erakusketan. Horrela, bai euskaldunek bai erdaldunek gozatzen ahalko dituzte urtez urte bildu lekukotasunak. Hortarako zazpi itzultzaile aritu dira lanean zortzi hilabetez. EKE-ren komunikazio eta dibulgazio poloa buru-belarri aritu da ere sortu azpitoluak berrirakurtzen eta zuzentzen.

Herri memoriari dagozkion artxiiboak ez dira aherentziak izan erakusketan. Partikularrak eta ikerlariak bezala, tokiko irati eta telebistak ere ari izan dira eta ari dira oraino Euskal Herriko memoriaren biltzen. Maite Barnetche-k (1941-1986) hainbat erreportaia egin zituen, telebista publikoak *Euskal Herria orai eta gero* lemapean zabaltu zituenak 1971-1986 arte hortan. Horietarik dozena bat ikusi ahal izan da Hazparnen, denak lurraldean filmatuak, INA erakunde jabearekin partaidetzan.

Sortzaileei ere erakusketan parte hartzeko parada eman die Euskal kultur erakundeak. Lur Olaizola (Donostia, 1988) eta Oskar Alegria (Iruñea, 1973) filmegileei ahozko memoriaren gaia esploratzea eskatu zaie. Bakoitzak bere gogoeta eta irakurketa pertsonalak eskainiko dizkio bisitariari aurkeztutako lanen bitartez.

- *Erleketa* – Oskar Alegria, 11 min.
- *Libertatea* – Lur Olaizola, 15 min. – Gipuzkoako diputazioak laguntza ekarri dio egitasmoari.

Bestalde, 2020 urtean zehar, EKE erakusketaren eguneraketa eta egokipena prestatzen aritu da, Donibane Lohizunen aurkeztu ahal izateko. Besteak beste, Lapurdi Hegoaldeko 78 lekuko elkarrizketatu ondoren hautatu 200 lekukotasun zati baino gehiagoren transkripzioa eta itzulpena egina izan da. Aipatuak diren gaien artean: Donibane Lohizune-Ziburuko portua, marinelen eta haien familien bizia, auzoen bizia, turismoa eta udako lana, familia eta gizartea, kirola eta kultura...

Hasiera batean, ezarpena azaroaren 14tik abenduaren 13ra aurreikusia baldin bazen ere, bigarren konfinamenduarengatik 2021eko iraila arte gibelatua izan da.

### ➤ « *Eleketa* » izeneko bi ukipen-pantaila interaktiko eta autonomoren ekoizpena

Bestalde, 2020an EKE-k bi ukipen-pantaila independente ekoiztu ditu, « *Eleketa, ahozko oroimenak* » bilketa egina izan den lurraldeetan ibili ondoan, publikoari erakusketan aurkeztu lekukotasun zatiak azpitutuluekin begiratzeko parada eskainiko diotenak.

Ukipen-pantaila horiek urrik uzten ditugu, hitzarmen batzuen bidez. Halako multimedia kiosko batzuk bezala, *Eleketa* programaren eta [www.mintzoak.eus](http://www.mintzoak.eus) ahozko memoriaren atariaren komunikazio hobea egiteko parada eskainiko digute tokiko jendea ibiltzen den toki batzuetan (mediatekak, Herriko Etxeak, turismo bulegoak, kultura zentroak...).

2021ean, Hazparnen, Donibane Lohizunen eta Donibane Garazin instalatuko ditugu.

### ➤ « *Euskal Etnopoloa* » labelaren kariatara eraman ekintzen eta aktualitatearen hedapena, tresna numerikoen bidez

Hizlariak baimena eman ondoan, «Etnopoloa» labelaren baitan antolatu mintegietako eta jardunaldietako hitzartze guziak filmatuak edo grabatuak dira. EKE-ren web-atarian, [www.etnopoloa.eus](http://www.etnopoloa.eus) helbidean, «Euskal Etnopoloa» atalaren barnean sailkatuak dira. Mementu berean itzultzaileek egindako bapateko itzulpenak grabatuak dira ere eta jatorrizko filmaketekin sinkronizatuak, bildutako materiala elebiduna izan dadin beti.

Horrela, bi mintzaldi eta « Ondareak eta sorkuntza: etnologiak polinizaturik » gaiaren inguruan 2020ko martxoaren 9 eta 10ean Baionan antolatu Frantziako Etnopoloen topaketa kari egin bederatzi hitzaldi sareratu ditugu 2020an.

Euskal Etnopoloaren aktualitatea eta jarduerak, euskaraz eta frantsesez landua den [eke.eus](http://eke.eus) web-atariako albiste hari berezi baten bidez ezagutarazi zaizkio publikoari. Albiste horietaz gain, labelari zuzendu sareko agenda berezia osatu dugu ere. Informazio horiek guziak berriz agertu dira, espresuki sortu dugun Etnopoloaren hilabeteroko berripaperan.

Bestalde, komunikazio bera deklinatu dugu EKE-ren sare sozial ezberdinetan, bai eta gure hilabeteroko informazio berripaperan ere.

Halaber, komunitate animazio bat segurtatua izan da, albiste horien sustapena egina izan zedin ere labelaren partaideen tresna numerikoen bidez.

## ➤ **Lehen Mundu gerlako euskal presoen grabaketen balorapena**

### **Kantuen transkripzio musikala**

Ikerketa egina izan da Jon Bagües (Eresbil musika zentroko zuzendari izana 2000tik 2020ra) etnomusikologoaren berme zientifikoarekin. 2020an, Agustin Mendizabal-ek aztertu ditu 2019an eginak zituen kantuen transkripzio musikalak (guztira 104 kantu-grabaketa, kantu batzuk errepikatuak edota aire ezberdinetan emanak). Azterketa eta partiturak (kantu bakoitz) Mintzoak atarian zintzilikatuak izan dira 2020ko irailaren 15ean.

### **Mediazio kulturala**

EKE-k balorazio ekintzak egiten segitu du lurraldeko aktoreekin partzuergoan:

- Euskal presoen grabaketei buruzko artikulua, Euskal Museoko Boletinean argitaratua (193 zk., 2020ko 1. seihilekoa), Maite Delia-ek idatzia. Horrela abiatu da EKE-ren eta Euskal Museoaren Adiskideak elkar-artearen arteko kolaborazioa euskal Etnopoloaren baitan finkatua.
- Maite Delia-ek Angelun 2020ko urriaren 13an ematekoa zuen hitzaldia, Angeluko Ikasleak elkar-arteak antolaturik, ezeztatua izan da COVID pandemiaren aurkako neurrien ondorioz.
- Funts arraro honen artxiboak eta erantsitako dokumentazioa EKE-ren egoitzan dagon kontsultagunean kontsultagarri dira.

## **1.3.2. Ondare datubaseetarako sarbideen erraztea**

### ➤ **Mintzoak izeneko ahozko memorioaren web-atariaren bermoldatzea**

www.mintzoak.eus webgunearen 2020ko estatistikak:

- Sesioak (bisitak): 29 626 (+ %58 / 2019)
- Erabiltzaileak (bisitari bakarrak): 23 829 (+ %48 / 2019)
- Ikusitako orriak: 104 515 (+ %75 / 2019)

2020an, Mintzoak atariari bermoldaketa grafiko eta funtzional sakon bat egin diogu, bilaketa tresnen eta multimedia edukien kontsulta oraino gehiago errazteko.

Azpimarratu behar da bi konfinamenduen garaian ataria publiko berri batzuen gana iritsi dela, bere eduki tematikoak bereziki agerian ezarriak izan baitira EKE-ren komunikazioan. Horri esker, kontsultazio estatistikek gora egin dute.

### ➤ **« Eleketa » erakusketaren luzapena Mintzoak atarian**

« Eleketa, ahozko oroimenak » erakusketaren abiatzearekin, 2020an Mintzoak atariak garapen ikusgarria ezagutu du, kontsultazio estatistikek erakutsi bezala.

Alabaina, Hazparneko eta Donibane Lohizuneko (gibelatua) instalazioak aitzin, erakusketan baloratuak izan diren lekuko guzrien biografiak webgunean ezarri ditugu, aldi guziz bideo zati batez lagundua. Hazparneko aurkezpenaren ondotikaldiz, erakusketako bideo zatiguziak dira beren azpiztituluekin Mintzoak webgunean integratuak izan direnak, fondoaren jabe den Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Artxibotegiaren baimenarekin.

Horrela, 2020-2021eko neguan, 500 bideo zati eta 100 lekuko fitxa baino gehiago gehituak izan dira webgunean.

### **Henri Duhau idazlearen obra osoa sarean eskuragarri**

Henri Duhau, Euskal kultur erakundearekin harremanetan jarri zen, laguntza eske, bere obra osoa argitaratu nahi baitzuen interneten. Orain arte bere artikulu eta ekarpen frango argitaratuak izan baziren ere Euskaltzaindiaren webgunean, ikerlari eta historialari senpertarrak bere liburu guziak nahi zituen jendeen esku jarri, urrik. Helburu horren lortzeko lan handia hartu du bere gain Henri Duhau-k, fitxategiak prestatuz, eranskinak gehituz, eta beharrezkoak ziren eskubideak bermatuz, baimenak bildurik. Gaur egun, bere bibliografia osoa eta bere argitalpen guziak gure Mintzoak ataritik deskarga daitezke, dohainik. Eskertzekoa da zinez Henri Duhau-ren ekimena eta eskuzabaltasuna. Erreferentziak bilakatu diren liburuak eskaintzen dizkigu orain, euskarari (*Hasian Hasi, Beskoitzeko Euskara, Euskal aditz batua...*), euskal dantzari (*Lapurdiko ihauteria eta mutxikoen pizkundera*) edota tokian-tokiko historiari (*Beskoitzeko Ur Gaziak...*) datzekiela.

### **Maurice Abeberry-ren omenezko artxibo bilduma numerikoa**

Maurice Abeberry gogoan elkarteak EKE-ri egin emaitza baten kariatara, Mintzoak atarian Maurice Abeberry-ren (1926-1988) omenezko orrialde berezi bat garatu dugu, besteak beste euskal pilota nazioarte mailan garatzeko egin zuen lana oroitarazteko. Biografia bat jasotzen du, bai eta artxibo ezberdinak ere (prentsa artikuluak, ekarpenak, soinu eta bideo grabaketak, argazkiak), horietarik gehienak sekulan argitaratuak izan ez zirenak. Bilduma horren osatzeko, hainbat elkarrizketa filmatu ditugu bera ezagutu zuten pertsonalitate batzuekin.

Begi keinu ederra, jakinez 2021eko azaroaren 3an 30 urte ospatuko direla Pantxoa Saint-Esteben artistak Larrungo Zizkoitzeko lepoan Maurice Abeberry-ren omenez zizelkatu obra estreinatu zenetik.

### **➤ France Bleu Pays Basque (1970-1990) irratiazen euskal artxiboen balorizazioaren prestaketa**

France Bleu Pays Basque irratiko euskal artxiboak 2000. hamarkadaren hastapenean hasi banda magnetiko batzuen numerizazio kanpainatik heldu dira. Horrela, 230 grabaketa oren inguru salbatu ahal izan dira. Fondo horrek egiazko altxorak biltzen ditu, hala nola 1969an Uztaritzen iragan Ez dok amairu kontzertuaren grabaketa (eta Peio eta Pantxoa bikotearen lehen agerraldi publikoa), Artze anaien parte hartzea Baionako Kontserbatorioan (1985), Mattin bertsulariaren (1981) eta Etxahun-Iruri-ren (1979) ehorzketa mezak, Beñat Galtxetaburu-ren azken dantzaldia Lasan (1990), baina ere Maite Barnetche eta Jan Battitt Dirassar-en euskal magazinaren emankizun ezberdinak ere (1976-1984). 2001ean, Kattalin Totorika-k fondo honen dokumentazio lana egin zuen EKE-rentzat. EKE-k artxibo horien eta dagokien katalogoaren CD eta disko gogor gaineo kopia dauka, irratiarekin 2000. urtean izenpetu eta 2003an berriz ikusia izan den hitzarmenaren kariatara.

2020an zehar, EKE-k fondo horren komunikagarritasunaren baldintzak negoziatu ditu horren jabea den INA-rekin (Institut National de l'Audiovisuel). Helburua da, Maite Barnetche fondoarekin egin bezala, 2021ean grabaketa horiek entzungarriak izan daitezen eta dagokien bilaketa tresna Mintzoak atarian ezarria izan dadin.

## ➤ **Departamenduko Artxibotegiko 18 AV bilaketa tresnaren datu-uztaren prestaketa – « Euskal itsas ondarea - Donibane Lohizune / Ziburuko portua »**

Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Artxibotegilako partaidetza baten kariatara, [www.earchives.le64.fr](http://www.earchives.le64.fr) webgunean publikatu bilatze tresna baten datu-uzta esperimentazio bat eraman izan zen 2018an. Helburua euskal dantzari buruzko Eleketa programaren kanpaina baten barneko metadatuak (19 AV datubasea) eskuragarri bilakaraztea zen (lekukoen biografiak, sekuentzien deskribapena). Hori guzia, euskarazko itzulpen batez aberasturik.

2020an, probak eta prestaketa-garapenak eginak izan dira datu-uzta euskal itsas ondareari buruzko 18 AV bilaketa tresnan (Donibane Lohizune / Ziburuko portua) egin dadin. 2021eko udazkeneko prest egon behar luke, datubase hori Departamenduko Artxibotegiko webgunean osoki argitaratua izanen delarik.

## ➤ **Kultura ondare immaterialaren kontsultagunearen kudeaketa**

Ahozko ondarearekin zerikusia duten hainbat ikus-entzunezko dokumentu daude kontsultagarri Euskal kultur erakundean, dagozkien jabe desberdinen baimenarekin beti.

Baliabide numeriko horien ezagutarazteko ahozko ondare kontsultagune bat sortu du bere egoitzan EKE-k, Uztaritzeko Lota Jauregian.

Kontsultagunea deneri irekia da (ikerlariak, ikasleak, artistak, kultur eragileak, kulturzaleak...) eta dohainik eskaintzen den zerbitzua da. Ezinbestekoa da hitzordua hartzea aitzinetik. EKE-ko lantaldeko langile bat bisitarien harreraz arduratzen da.

Gaur egun, ondoko funtsak daude kontsultagarri (funts horien oinarrizko zerrenda [www.mintzoak.eus](http://www.mintzoak.eus) webgunean aurkitzen ahal da):

- *Eleketa* programaren ikus-entzunezko lekukotasunak (EKE – Pirinio Atlantikoetako Artxibotegia);
- Maite Barnetche-ren *Euskal Herria orai eta gero* (1971-1986) telebista emankizunak (INA);
- Prusiako Komisio fonografikoaren Euskal presoen grabaketak Alemanian bilduak Lehen Mundu gerlan (Berlingo Etnologia Museoa [Phonogramm-Archiv] - Berlingo Humboldt Unibertsitatea [Lautarchiv]);
- ipar Euskal Herrian bildutako « Euskal Herriko ahotsak » egitasmoaren lekukotasunak (Eibar-eko Badihardugu elkarte);
- *Iparraldeko herri-kantaera tradizionala. Intonazio neutro edo erdibidekoa* lanerako Agustin Mendizabal musikologoak (Oiarzun, 1967) egin dituen grabaketak.

Ahalegindu gira kontsultagunea irekirik uzten 2020an, egoera sanitarioaren arabera.

Hetsirik zenean segitu dugu jendeen eskaerak eta dokumentuen kopiak bideratzen Mintzoak ataritik.

## ➤ **Kontsultagai diren funtsen balorapena**

Mintzoak atarian eta kontsultagunean dauden ondare immaterialari buruzko artxibo funtsen artean, balio handiko bildumak badira, EKE-renak direnak edo instituzio ala elkarteek pausatuak.

Udako Euskal Unibertsitateak antolatu udako jardunaldietan, Maite Barnetche-n *Euskal Herria orai eta gero* telebista emankizunak (INA), Alemaniako euskal presoek grabaketak eta *Eleketa* ahozko bilketaren lekukotasunak baloratuak izan dira, bereziki mitologia, ipuingintza eta leiendei lotuak. 2020ko uztailaren 15ean, *Ahozko tradizioen transmisioari teknologia berrien ekarpena* bideo-hitzaldia eman du Maite Deliaart-ek.



## ➤ **Gogoeta kolektiboa dokumentu-baliabideen eskuragarritasunaren inguruan**

« Etnopoloa » labelaren baitan Euskal kultur erakundeak lan sail zabala abiatua du ipar Euskal Herriko dokumentazio eragile nagusiak bilduz, numerikoak eskaintzen dituen ahalbideen aztertzeko. Helburua: euskal kulturari lotuak diren edukiak publikoari gehiago zabaltzea.

Mota guzietako erabiltzaileek (publiko zabala, ikerlariak, artistak...) baliabide numerikoak errexki eskura eta kontsulta ditzaten, metodologia eta praktika amankomunak bidera daitezke denen artean.

Gai hau aipatua izan zen ere Etnopoloaren lehen kolokioaren kariatara, 2017ko maiatzaren 19an, *Euskal kulturaren atari bat: zertarako? Norentzat? – Kultura baliabide numerikoak: publiko zabalaren erabilpenetatik sorkuntza artistikoraino* lemapean. Trukaketa horien sustatzeko « Dokumentazioa eta numerikoa » lantalde irekia sortu da.

Artetan tailer tematikoak antolatzen ditu. Tailer horiek euskal kulturari buruzko funtsak dokumentatzeko eta zabaltzeko izaten ahal diren problematika bereziak jorratzen dituzte.

Ahozko memorioaren ikus-entzunezko bilketaren kariatara sortu corpusaren transkripzio/itzulpen automatikoak adimen artifizialaren aroan sortarazten dituen galderak argitzeko topaketa bat egin beharra zen 2020ko udazkenean. Covid-19 pandemiaren ondorioz, berantago egitea erabakia izan da.

## 2. EUSKAL KULTURA TRANSMITITU ETA HEDATU

### 2.1. Proiektuak sustatu bitartekaritza kulturalaren zerbitzuko

#### 2.1.1. Sentsibilizazio tresnen eta ekintzen gauzatzea

##### ➤ *eke.eus atariaren eduki tematikoei buruzko lana*

www.eke.eus webgunearen 2020ko estatistikak:

- Sesioak (bisitak) : 283 284 (- %4 / 2019)
- Erabiltzaileak (bisitari bakarrak): 218 522 (- %1 / 2019)
- Ikusitako orriak: 689 689 (- %20 / 2019)

Kalitateko edukiak publiko guziendako eskuragarri izatea, hori da EKE-ren webgunearen erronketarik bat. Helburua, euskal kulturaren aldeko sentsibilizazioan eta heziketa artistikoan parte hartzea da irakurketa maila eta beste sartze batzuk lehenetsiz.

2020ko bi konfinamenduen kariatara, EKE bere atarian urrik eskaintzen dituen baliabideen aniztasuna hobeki ezagutarazten entseatu da (elkarrizketak, lekukotasunak, txosten tematikoak eta sareko erakusketak), gehienetan euskaraz eta frantsesez.

Publikoak baliabide horiek kontsultatu ditu, estatistikek frogatu bezala: bisita kopurua dagokionez, neurri handi batean, eduki tematikoetan izan diren bisitek konpentsatu dituzte gure agenda arrakastatsua hetsia izanik bestalde galdu ditugunak (oharra: agenda urtearen zati handi batean hetsia izateak ekarri du ikusitako orri kopuruaren apaltzea).

Bestalde, azpimarratu behar da 2020an prestakuntza lan batzuk eginak izan direla ere, hala nola eduki batzuen jarraipena segurtatzeko. Adibidez, « *Batekmila* » (2009) erakusketari lotu lau hizkuntzako webgunearen birmoldaketa egin behar izan dugu, flash teknologia zaharkitua gelditu delako. Horrez gain, laster argitaratuko ditugun kultura atal berri batzuen prestaketan aritu gara ere. Horrela, EATB federazioaren argitaratu gabeko antzezlan batzuen testuak sarean emateko prestatu ditugu.

##### ➤ *Zineskola dispositiboaren koordinakuntza*

Zineskola dispositiboa Euskal kultur erakundeak du antolatzen ondoko partaideekin: Cinéma & Cultures, Zineuskadi, Hezkunde Nazionala, IKAS euskal pedagogia zerbitzua eta Cinévasion.

Helburuak: euskarazko animazio filma interesgarriak proposatu euskara irakasleei eta beren lehen mailako ikasleei, laguntza pedagogiko egoki bat eskaini, eta ikasleei euskara eskolatik kanpo erabiltzeko parada eman.

2020an eskola eta erakasleei 2 filma proposatu zaizkie:

- *Arratoi pirata eta hazteko hainbat abentura* – 42' – Zuzendaria: Jeroen Jaspaert – Erresuma Batua – 2017 – Ikasle publikoa: lehen zikloa (3-6 urte)
- *Kerity* – 74' – Zuzendaria: Dominique Monféry – Frantzia – 2012 – Ikasle publikoa: 2. eta 3. zikloak (6 urtetik goiti)

2020an ere, erakasleei formakuntza saioak eskaini zaizkie filmen edukiak lantzeko heien ikasleekin. Horretarako, talde pedagogiko bat eraiki da Hezkunde nazionaleko, EKE-ko eta IKAS euskal pedagogia zerbitzuko aholkulari pedagogiko batzuekin.

Irakasleen formakuntza eguna – hau da filmen proiektzioak eta ustiapen pedagogikoen aurkezpenak – 2020ko otsailaren 19an iraun da Kanboko L'Aiglon zinema gelan Seaska, eskola publiko eta eskola pribatuetako 50 bat erakasle bilduz.

Filmaren proiektzioentzat izen emateak horrelakoak izan dira:

- 5 619 ikasle (Iparraldean lehen mailan euskaraz ikasten duten ikasle kopuruaren %50a baino gehiago)
- 90 eskola 50 herritik jina

Emanaldiak martxoaren 23tik goiti hasi behar ziren bainan Covid izurritearengatik 2020ko Zineskola edizioa ezeztatzea behartuak izan ginen.

### ➤ **Espetxean sentsibilizazio egunen ko-antolaketa**

Service Pénitentiaire d'Insertion et de Probation (SPIP) zerbitzuarekin partaidetzaren barnean, EKE-k Baionako presondegiko atxilotuei euskal kultura ezagutarazi nahi die. Osasun egoeragatik, aurreikusi bi ikastaldiak ezeztatuak izan dira eta haien antolaketa 2021era gibelatua izan da.

Bestalde, EKE-k euskal kulturari buruzko liburuak eskaini dio espetxeko liburutegiari.

### ➤ **Irakurketa publikoko profesionalen sareari zuzendu egun profesionalen ko-antolaketa**

BILKETA sarearekin eta Biblio64-arekin antolatu egun profesional hauek lurraldeko liburutegietako langileei euskal kulturari sentsibilizazio bat eskaintzen dute. Egund hauek formatzeko aukera ematen dute baina baita ere sareko beste profesionalekin partekatzen dituzten problematiken inguruan trukatzeko aukera ematen.

2020 urteko programa:

- Emazte idazleak euskal literaturan (Sarako Biltzarraren kariatara antolatu egun profesionala)
- Ahozko literatura
- Gaurko musikak
- Gazte literatura euskaraz

Osasun egoerak 2020 urtean aurreikusiak ziren topaketa guztiak bertan behera utzi ditu. 2021 urtean antolatuak izanen dira.

Hortarako, gogoeta bat eramana izan da eta formatu egokiena ez bada ere, 2021ean webmintegi modura antolatuak izanen dira egund hauek. Formatu horrek profesionalen sareendako beharrezkoak diren topaketa hauen mantentzea segurtatzen du.

### ➤ **Lizeoan antzerki tailerren ko-antolaketa**

2020ko urtarrilaren 27, 28 eta 29an Baionako Bernat Etxepare lizeoko Biltoki gelan Atx Teatroak *Tomiris* antzezlanaren hedapena lagundu da. Orotara, bost emanaldi aurkeztu dira, Baionako Etxepare, Cassin eta Villapia lizeoko 400 bat ikasle bildu direlarik. Egitasmoa Etxepare lizeoarekin, Baiona Hiriko euskara bulegoarekin eta EKE-rekin partaidetzan gauzatu da.

### ➤ **Publiko zabalari zuzendu mintzaldien ko-antolaketa**

Osasun egoerarengatik 2020 urtean aurreikusiak ziren topaketa guziak ezeztatuak izan dira.

### ➤ **Sensibilizazio tresnen sortzea: irakurketa kutxak**

Egitasmo horren inguruan bi bilkura tekniko antolatuak izan dira. 2021ean garatuko da.

## **2.1.2. Lan taldeen animazioa**

### ➤ **Arte eta Kultura Heziketa-ri buruzko lan taldearen ko-animazioa**

EKE, Departamendua, Euskararen Erakunde Publikoa, DRAC eta Euskal Hirigune Elkargoa biltzen dituen lan taldea martxoaren 23an elkartu behar zen dispositiboaren lekuaren egoera-akta egiteko eta haien osagarritasuna lantzeko. Osasun egoerarengatik, topaketa ezeztatua izan da eta gogoeta hori 2021ean eramanen da.

### ➤ **Euskarazko kamishibai-ei buruzko lantaldearen ko-animazioa**

Osasun egoerarengatik, EKE-k eta Biblio64-ek ko-animatzen duten lantaldea ez da elkartu 2020an. Euskaratuak izan diren kamishibai-ak liburuzainen eskuko ezartzeko gogoeta 2021ean berriz abiatuko da.

## **2.2. Kultura politikan euskal kulturaren egituraketa eta garapena lagundu**

### **2.2.1. Euskal kulturaren integrazioa kultura politika publikoetan**

#### ➤ **Euskal kulturaren sartzeari kultura politika publikoetan**

Orokorki, EKE urte osoan aholkulari izan da erakunde ezberdinetan, hala nola herrietan, Euskal Hirigune Elkargoan, Departamenduan, Eskualdean...

Besteak beste, Departamenduarekin adostu hitzarmenaren babesean, gehigarritasunak bilatuak izan dira interes amankomunen misioak elgarrekin eramaiteko, hala nola ondarearen, Arte eta Kultura Heziketaren, arte bisualen, irakurketa publikoaren edo ikusgarrigintzaren alorretan.

2019ko urtarrilaren 26an, EKE-ko administrazio Kontseiluak partaide publikoen (Estatua, Akitania Berria Eskualdea, Pirinio Atlantikoetako departamendu Kontseilua, Euskal Hirigune Elkargoa) eta Euskal kultur

erakundearen arteko hitzarmen baten idazteko printzipioa onartu zuen, euskal kulturaren lehen mailako operadore gisa eta hori, ipar Euskal Herriko politikekin, dispositiboekin eta egiturekin osagarritasunean. Arrazoin ezberdinengatik, hitzarmen horren idazketak beranta bildu du.

Orain, mahain baten inguruan biltzea ezinbestekoa da horren bukatzeko eta 2021 ean partaide bakoitzak baieztatu dezan. Urte hau trantsizio urte garrantzitsua da EKE-rentzat, zuzendari berri bat etorri baita otsailaren 1ean. Alabaina, hitzarmen bat baino gehiago da. Euskal kulturaren aldeko politika baten gobernantza modalitateak dira elkarrekin zehaztu beharko ditugunak, eta hori alor eta esku-hartze ardatz ezberdinetan: sorkuntza, transmisioa, hedapena Euskal Herrian eta munduan zehar, trukaketa artistikoak, kultura ondare immateriala, mugaz gaineko lankidetzak...

Izan ere, ipar Euskal Herriaren gaur egungo kontestu instituzionala eta NOTRe legeak zehazten dituen erakunde publikoen arteko kulturaren gaitasun partekatuak kontutan harturik, euskal kulturaren alorrean behar-beharrezkoa da osagarritasuna, koherentzia eta ekintza publikoaren irakurgarritasuna segurtatuko dituzten gobernantza modalitateak plantan ezartzea.

Euskal Hirigune Elkargoaren sortzearekin, tokiko paisaia politikoa aldatu da eta horrek euskal kulturak lurralde proiektu batean ukan behar duen tokiaz elkarrekin gogoetatzeko aukera eskaintzen digu.

Gaur egun, eragile amatur eta profesionalek egunero euskal kultura sortzen, animatzen eta bizi dute; instituzio eta ekonomia maila ezberdinek laguntzen dute eta herritarrekin partekatua da.

Bere sortzetik, EKE-ren gobernantza modua eragile ezberdin horien elkartzean oinarritu da, erabakitzeke ahala duen administrazio Kontseilu batekin, eragile horien bozeramale dena.

Kultur alor ezberdinetan esperientzia handia duen lantalde inplikatu batekin, EKE egiazko arartekolaria da eragile kultural eta artistiko ezberdinen artean. Halaber, kultura edukiak ekoizten eta hedatzen ditu eta horrez gain, euskal kulturaren azterketa eta prospektiba laboratoriorik bat da ere.

Funtsean, erakunde publikoen partaidetzarekin, *Euskal kulturaren diagnostikoa eta politika publikoetarako norabide proposamenak* izeneko txostena argitaratu du.

2017an, Euskal Hirigune Elkargoa sortu zen urtean, txosten hori kultura gaitasuna duten erakunde publikoei (Estatua, Akitania Berria Eskualdea, Pirinio Atlantikoetako departamendu Kontseilua, Euskal Hirigune Elkargoa...) emana izan zaie beren gogoetak elika ditzan euskal kulturarentzat egokienak diren gobernantza modalitatei buruz, EKE tresnaren garatzeko aukerei eta gaur egun dituen funtzioei buruz, bai eta bakoitzaren kultura politiken zehazteko modalitateei buruz ere.

Txosten hori euskal kulturaren lehen hurbilpen bat da. Sakondu eta eguneratu beharko da, baina segur gaude erreferentziako dokumentu bezala baliatzen ahalko dela, ontasun amankomun bezala partekatu nahi dugun gizarte proiektuan euskal kulturak zer toki ukanen duen zehazteko eginen diren gogoetentzat.

## **Kultura eskubideei buruzko lana**

Azken urte hauetan, Euskal kultur erakundea engaiatu da kultura eskubideak kontutan hartzeko urteko egitasmoetan, besteak beste Jean-Damien Collin ikerlariarekin.

2020an, bi lan ardatz proposatu ditu:

1. Lan ildo batzuen lantzea eta analisisien arabera hobetze proposamenak egitea
2. Erreferentziarako kuadroaren sortzea, EKE berarentzat eta gizartearekiko erantzunkizunarentzat biztanleen kultura eskubideak alhan ezartzeko

Jadanik 2019az geroztik, eta aitzinean egin sensibilizazioen ondotik, langile bakoitzak landu du berak garatzen duen lan sailaren azterketa. Egoeraren arabera, taula eta kartografiak eraikiak dira, gal-irabaziak eta problematikak jalgiazzteko xedearekin.

Karia hortarat, proposamen berriak egin daitezke, praktikak arramoldatzeko, orokorki funtsezko eskubideak kontutan hartzeko, eta hurbilagotik kultura eskubideak joratzeko.

Ondorioz, Euskal kultur erakundeak erreferentziazko kuadroa sortu nahi du, kultura eskubide horiek ahal bezainbat obratzeko, EKE-n berean eta orokorkiago kultura egitasmoetan.

Lan parte bat eginik izan da bainan Covid izurritearengatik, beste partea 2021ean aitzinera eramanen da, lantalde osoarekin.

## ➤ **Hirien laguntzea kultura programazioetan**

### **Baionako Hiria**

Baionako Hiriak eta Euskal kultur erakundeak duten hitzarmenaren bitartez, hainbat euskal kulturaren aldeko ekitaldi antolatu dira, hauen artean:

- « Kontzertu atipikoak », Baionako besteen kariatara (Protestanteen tenplua, Collégiale eliza)
- « Koruak » abesbatzen festibala
- Paseo kultura ekitaldietan parte hartzea
- Bilaka dantza Konpainiaren egituratzean eta hedapenean
- Euskal antzerkiaren hedapena, IBILKI programaren bitartez

2020an, ikusgarri andana bat ezeztatu dute, Covid izurritearengatik. Halere, Euskal kultur erakundeak sostengatu ditu:

- Korrontzi taldearen kontzertua – « Carreau des Halles » plazan – Irailaren 1ean
- Maritzuli Konpainiaren « *Euskal Herriko jantziak/Costumes et mémoires de fils* » erakusketa – Baionako katedralaren klaustroan eta Baionako saltegieta – Agorriaren 18tik irailaren 13a arte
- Tanttaka Teatroaren *Muxua* antzezlan – Luna Negra kabaretean – Urtarrilaren 14ean (IBILKI programaren kari)
- Loraldia kultur elkartearen *Anton Abbadia* antzezlan – Luna Negra kabaretean – Otsailaren 11an (IBILKI programaren kari)
- Itzuli Konpainiaren *Behin bazen internet* antzezlan (eskolei zuzendutako emanaldia) – MVC Polo Beyris-en – Maiatzaren 29an aurkeztu behar zena, Covid izurritearengatik urriaren 16an gibelatu eta aurkeztu da (IBILKI programaren kari)

### **Biarritzeko Hiria**

Urte osoan zehar, hainbat ekitaldi aurreikusiak ziren Euskara zerbitzuarekin edota mediatekarekin partaidetzan euskal artisten programazioarentzat. Kasik ekitaldi guziak ezeztatuak izan dira.

Eleka Konpainiaren (Kattalin Sallaberry eta Jokin Irungaray) *Hala izan ala ez izan* emanaldia mantendua izan den data bakarra izan da. « Mintzalasai » festibalaren kariatara antolatua izan da Biarritzeko mediatekan, irailaren 23an. Uda Lekuko eta Hiriko 50 bat hurren aintzinean iragan zen.

### **Hendaiako Hiria**

2020 urtean, Kaperan A Kapela zikloa arraberritu behar zen beste arlo artistikoei idekitzeko. Programazio dispositibo berri bat plantan emateko xedea agertu zen: Arteak'Abbadian izeneko.



Bi topaketa aurre ikusiak ziren bertsularitza argitan ematen zutenak:

- Martxoaren 28a: Abbadia jauregiaren bisita bertsotan Miren Artetxe Sarasola eta Alaia Martin Etxebeste bertsulariekin

- Irailaren 12a: Aire ahizpak taldearen kantaldia (haien errepertorioaren aurkezpena baina baita ere Antoine d'Abbadie-k garaian antolatutako Lore Jokoetan sariztatuak izan ziren bertsu batzuen berinterpretazioa.

Osagarri egoerak bi topaketa hauek bertan behera utzi dituenek, berriz programatuak izanen dira 2021an.

## **Mauleko Hiria**

Covid izurritearengatik kultura ekintza guztiak 2021era gibelatu dira.

## **Donibane Lohizuneko Hiria**

Donibane Lohizuneko Hiriak eta Euskal kultur erakundeak duten hitzarmenaren bitartez, hainbat euskal kulturaren aldeko ekitaldi antolatu dira, hauen artean:

- Loraldia kultur elkartearen *Anton Abbadia* antzezlanak - Harriet Baita Karpan – Otsailaren 16an (IBILKI programaren kari)

- Thierry Biscary *Muda* disko berriaren aurkezpena – Harriet Baita Karpan – Apirilaren 5an

## **Donibane Garaziko Hiria**

Loraldia kultur elkartearen *Anton Abbadia* antzezlanak. « Citadelle en scènes » festibalean aurkeztu behar zena agorrilaren 20an, Covid izurritearengatik Vauban zinema gelan programatu eta aurkeztu da irailaren 20an (IBILKI programaren kari).

## **2.2.2. Kultura alor batzuen egituraketari eta garapenari laguntza**

### **➤ Euskal kantua**

Euskal kultur erakundeak parte hartu nahi ukan du euskal kantuaren geroaz abiatua den gogoetetan, bereziki transmisioaren, sorkuntzaren eta oro har arrajabetzearen sailetan.

Alor hori oso zabala izanez, lehentasuna eman nahi genieke abesbatzeen kantuari, Iparraldean funtsezko lan baten egiteko nola errepertorioen arraberritzeko, hala kantari gazteagoen formatzeko.

Helburu horiekin, ekimen interesgarriak eramaten dituzte bai abesbatzen Federazioak bai Ahotsaren Akademiak, abesbatza zuzendarien eta kantarien formatzeko.

Horri datxikola, Baionako Hiriak eta EKE partaide dira Baionan « Koruak » deitu festibalaren laguntzeko, honek lurralde ezberdinetako kantariak elgarretaratzen dituelarik.

Azkenik, Ravel Kontserbatorioak ere koru-kantuaren erakaskuntza badauka bere misioetan.

Erran gabe doa desmartxa horiek orok norabide berdina dutela: kalitate artistikoaren hobetzea, modeloak arraberritzea bainan horretarako, beharrezkoa da eragile horiekin ekintza batuak egitea.

Beraz Iparraldeko Abesbatzen Federazioarekin eta Ahotsaren Akademiarekin adostu ondoan, gogoeta egun bat finkatu genuen 2020ko urriaren 24ean, « Koruak » festibalaren kariatara, ipar eta hegoaldeko koru zuzendari, kantari eta erakunde publikoekin gai honen inguruan: haur koruen eta koru zuzendarien formakuntza. Izurritearengatik, gogoeta egun hau atzeratua izan da.

## ➤ **Euskal dantza**

Osasun krisiak euskal dantzaren munduan eragin handia izan du eta ondorioz, Iparraldeko Dantzarien Biltzarraren proiektua ez da burutatu izan aurreikusitako moduan.

Ekitaldi eta topaketa ugari - Dantzari ttiki Hazparnen, Dantzari Gazte-ren lehen edizioa Kanbon, Dantzari eguna, Harri Xuri dantzan, Bretainiarekin birazkatzea - bertan behera utzi izan dira eta haien antolaketa 2021. urtera gibelatu da. Bestalde, astero elkartetan eta Zabala, Jalgi eta Masterklaz dispositiboetan proposatzen ziren dantza eta musika kurtsoak, dantzari eta formatzaileentzat eskaini ikastaroak, bai eta kultur transmisioa mantentzen eta euskararen praktika bultzatzen laguntzen dituzten bestelako topaketak geldiarazi zituen itxialdiak eta iraileko berriz hastea partziala izan da.

Hala ere, beste kultur eragile batzuk bezala, IDB kontestu berrira egokitu da bere proiektuko hainbat arlo garatuz eta indartuz eta kideekin duen harremana mantenduz eta indartuz. Hortarako, euskarri numerikoak sortzen hasi zen dantzaren eta musikaren transmisioaren eragilei laguntza eraginkorra eskaintzeko asmoz. Bestalde, gehigarri horiek IDB-k proposatzen dituen dispositiboan edukiak aberastu dituzte.

## ➤ **Euskal literatura**

### **Laguntza Sarako Biltzarrari egun profesional baten antolatzeke**

EKE-k hastapenetik Sarako Biltzarrak laguntzen du eta izan diren bilakaerak hurbiletik segitu ditu. Bigarren urtez jarraian, Biltzarreko kideek, Sarako Hiriko ordezkariak, EKE-k eta BILKETA-k osatzen duten lantaldea 2019ko irailetik elkartu da, egun profesionalaren prestatzeko. Programa prest zegoela, osasun krisiarengatik, egun profesionalaren antolaketa 2021era gibelatua izan da.

### **Irakurle klubaren lekuaren egoera-akta**

EKE-k helduei zuzendu euskarazko irakurle klubaren lekuaren egoera-akta egin behar zuen 2020an. Osasun egoeragatik, proiektua ez da gauzatu.

## ➤ **Euskal zinema**

2020 urterako, EKE-k euskal zinemaren hedapenerako duen postura aldatu egin da: banaketari sustengua baztertu da zinema gelekina partaidetzak indartzeko filmak ikusgarritasuna indartzeko asmoz. Euskal kultur erakundeak, euskal zinema hedapenaren aldeko duen misioaren kari, ekitaldi ainitzetan bultzatzaile eta partaidea izan da nahiz eta Covid izurriteak nahasi egin duen dinamika hori.

Dantza, antzerki edo literatura arloetan bezala, duela urte batzu Euskal kultur erakundeak euskal zinemaren alde engaiamendu azkar bat daramala. Konkretuki, hedapenerako ekartzen duen laguntza zinema festibaletan edo euskal zineari dedikatu gaualdietan zuzentzen du, publikoen eta filma egileen arteko topaketak sustatzeko asmoz.

Euskal zinemaren kalitatea gero eta altuagoa da urte batetik bestera, eta hori ikusi da hedatu edo hedatu nahi izan diren filmekin, irailetik abendura.

Hara non, « Rencontres sur les Docks » festibalaren kari, Baionan irailaren 9tik 11ra iraun dena, Jon Garaño filma egilearen *La Trinchera Infinita* aurre estreinaldiaren aurkezpena lagundu da (Aitor Arregi eta Jose Mari Goenaga-rekin zuzendutako filma hori urriaren 28tik goiti zinema geletan banatu behar zen).

Baita ere, Lander Garro kazetariaren eta publiko arteko topaketa sustatu egin da, zuzendu duen *Bi urte, lau hilabete eta egun bat* dokumentalaren inguruan. Hain zuzen ere, filma horren aurkezpenen birak EKE-ren laguntza jaso du zinema horietan: Hazparneko Haritz Barne (9/20), Donapauleko Complexe Saint-Louis (9/24), Donibane Lohizuneko Le Sélect (9/29), Hendaiaiko Les Variétés (10/3), Mauleko Maule Baitha (10/8), Kanboko L'Aiglon (10/15), Donibane Garaziko Le Vauban (10/16).

Urriaren 6an Lara Izagirre filma egilearen presentzian bere *Nora* filmaren proiektzioa Kanboko L'Aiglon zinema gelan aurkeztu zen Donibane Lohizuneko Filmaren nazioarteko festibalean.

Urriaren 10ean, EKE Oskar Alegria *Zumiriki* filma estreinaldiaren partaide izan da ere bai. Nafartarraren harri bitxi hori, Donibane Lohitzuneko Sélect eta Mauleko Maule Baitha zinema geletan erakustea xedea bazen azaroaren 16 eta 17etan baina Covid izurriteak 2021era gibelarazi ditu emanaldi horiek. Hazparneko « Zinegin » festibalean bezala (azaroak 27-29) filmaren ikusteko beste aukera zen. Emanaldi bakotxetan zinemagileak solasaldiak eskainiko zituen Baionan bezala.

Halaber, urriaren 30etik goiti, EKE-k *Atarrabi eta Mikelats* Eugène Green zuzendariaren aurkezpen bira sustatzekotan zen. Gainera, emanaldiekin batera, Thierry Biscary, Maddi Oihenart eta Jérémie Garat-ek kantalditxoak proposatuko zituzten gualdi berezi batzuetan, Baionan, Donibane Lohizunen eta Maulen.

Eta euskal zinemaren bizitasunaren beste froga bat Pablo Agüero argentinar filmegilearen *Akelarre* aurre-estrenaldiak sustatzekotan zen ere abenduko hilean.

Bukatzeko, « Aquitaine.eus » programaren kari (hau da ipar Euskal Herriko, Euskadiko eta Nafarroako kultura eragileen mugikortasuna eta hedapena sustatzea Akitania Berrian programa), EKE-k euskal zinemari buruz asteburu bat antolatu zuen Bordaleko Utopia zinema gela ospetsuarekin azaroaren 13 eta 14ean: Oskar Alegriaren *Zumiriki* eta Koldo Almandoz-en *Oreina* filmak ikusgai ziren bi zinemagile horien presentzian. Programatuta baita ere *Euskal zinema: zinemagileen hiru belaunaldi* liburuaen aurkezpena Joxean Fernandez Euskadiko Fimategiaren zuzendariaren eskutik. Ekitaldi hori 2021era gibelatu egin da ere bai.

## ➤ **Euskal antzerkia**

Seigarren urtez segidan, IBILKI programari esker, Euskal kultur erakundeak euskarazko antzerkiaren hedapena sustatzen segitu du ipar Euskal Herrian. 2020ko urtarrila eta agorrila artean gure lurraldeko ikusleek euskal antzerkiaren kalitatea eta aniztasuna deskubritzeko aukera proposatu du. Baionan, Donibane Lohizunen, Miarritzen, Hendaian, Hiriburun, Bidarten edo Donibane Garazin zortzi antzezlan eta hamabost bat emanaldi antolatzen lagundu ditu herri horien kultura zerbitzuak baita ere programatutako konpainiak.

Covid izurritea aitzin, horrelako programa aurreikusia zen:

- Urtarrilaren 14a: *Muxua*, Tanttaka Teatroa – La Luna Negra kabaretea (Baiona)
- Otsailaren 11a: *Anton Abbadia*, Loraldia kultur elkarteak – La Luna Negra kabaretea (Baiona)
- Otsailaren 16a: *Anton Abbadia*, Loraldia kultur elkarteak – Harriet Baita Karpa (Donibane Lohizune)

Martxoaren 16tik goiti, Covid izurritearengatik ondoko emanaldi horiek ezeztatu edo gibelatu dira:

- Martxoaren 18a: *Kaskarot*, Atx Teatroa – Colisée gela (Biarritze) – Emanaldia abenduaren 9ra gibelatu da eta berriro gibelatu Covid izurritearengatik
- Martxoaren 20a: *Gora ! Un selfie au milieu des sioux*, Collectif Balle Perdue – Gaztetxea eta skate parkearen artean (Biarritze) – Ezeztatua
- Martxoaren 26a: *Kaskarot*, Atx Teatroa – Mendi Zolan (Hendaia) – Emanaldia 2021eko martxoaren 25era gibelatu da eta berriro gibelatu larrazkenara Covid izurritearengatik
- Apirilaren 12a: *Herriko bozak*, Iduzkilore – La Perle gela (Hiriburu) – Ezeztatua
- Maiatzaren 16a: *Gora ! Un selfie au milieu des sioux*, Collectif Balle Perdue – Gaztelu Zahar pilota plaza (Hendaia) – 2021eko maiatzaren 29ra gibelatu da
- Maiatzaren 16a: *Lur*, Xake Produkzioak – Gaztelu Zahar pilota plaza (Hendaia) – 2021eko maiatzaren 30era gibelatu da
- Maiatzaren 29a: *Behin bazen internet*, 13R3P / Itzuli Konpainia – MVC Polo Beyris (Baiona) – Urriaren 16ra gibelatu da Covid izurritearengatik eta aurkeztu egin da
- Maiatzaren 29a: *Zuhaitzarekin solasean*, Rouge Elea – Xoko batean kanpoan (Bidarte) – 2021era gibelatu da
- Ekainaren 17a: *Lur*, Xake Produkzioak – Beheria Aretoa (Bidarte) – Abenduaren 16ra gibelatu zen eta berriro 2021 maiatzaren gibelatu da
- Agorrilaren 20a: *Anton Abbadia*, Loraldia kultur elkarte – « Citadelle en scènes » festibala (Donibane Garazi) – Irailaren 20ra gibelatu zen eta Vauban zinema gelan aurkeztu
- Abenduaren 1a: *Harri Orri Ar*, Pez Limbo konpania – Harriet Baita Karpa (Donibane Lohizune) – Akitania Hegoaldeko Eszena nazionalarekin partaidetzan – Covid izurritearengatik emanaldia ezeztatu da
- Abenduaren 2 eta 3a: *Besteen kalea*, Jour de Fête Konpainia – Albizia gela (Baiona) – 2021era gibelatu da

## 2.3. Tokiko kultur elkarteei laguntza eta aholkuak eman

### 2.3.1. Beharretara egokituak diren laguntzen bultzatzea

#### ➤ Informazio saioen anolaketa

Euskal kultur erakundeak eta Pirinio Atlantikoetako DLA laguntza dispositiboak (Profession Sport et Loisirs 64 egiturak eramana) elkarteei zuzendu informazio bilkura eta jarraitze kolektiboak proposatu behar zituzten 2020 urtean zehar. Hala nola, jarraitze kolektibo bat eta hiru informazio gaualdi antolatutakoak izan behar ziren.

#### Informazio gaualdien antolaketa

2020an, hiru gaualdi antolatzekoak ziren, EKE-ko elkarte kideei zuzenduak. Aurreikusitakoak ziren hiru gaualdien artean, bakar bat antolatua izan da, urriaren 1ean, ostegunez, Uztaritzeko Lapurdi zentroan: « Aktibitate proiektutik behin-behineko aurrekondura » gaiaren inguruan. Gaualdi honek, 15 parte hartzaile bildu zituen (EKE-ko elkarte-kideak).

## Jarraikitze kolektibo baten antolaketa

Hasiera batean, martxoa eta maiatza artean antolatu behar zen « Kultur egituren arteko elkarlana » deitutako jarraikitze kolektiboa, baina lehen itsialdiak gibelatzea behartu du. Azkenean 2020ko iraila eta 2021ko urtarrila artean antolatu ahal izan da (presentzialean eta distantzian).

EKE-ko bost elkarte-kideek jarraikitze hortan parte hartu dute (gehienik 2 pertsona elkarteka): Sarako Biltzarra, Kiribil, Jakinola, Belarri, eta Soropila.

Egitura bakoitzaren jarraikitzea baieztatu aintzin, baldintza batzu beteak direla segurtatzen da: egitasmoari buzuko aurre-gogoeta bat eramana izan behar du, profesionalizazio desmartxa batean izan, modelo ekonomikoan, diru laguntzek irabazien %40a baino guttiago izan behar dute).

Iraupena: 4 egun egitura bakoitzarentzat

- Irailaren 25a (egun kolektiboa – presentzialean)
- Urriaren 5a (egun kolektiboa – presentzialean)
- Azaroaren 12a (egun kolektiboa – distantzian)
- 2021eko otsailaren 5a (egun kolektiboa + bilana – presentzialean eta distantzian)

Jarraikitze kolektiboak guztien galderei erantzuteko aukera ekartzen du, banakako egun erdiek aldiz bakoitzaren problematiken inguruan lan baten eramateko aukera eskaini du, alorren arabera (ikusgarrigintza, ondarea, argitalpena, heziketa...) edota zailtasun bati lotua (sozial mailan, autore eskubideak, intermitentzia, irudi eskubidea...).

Azkenik huna zein ardatz landuak izan diren:

- Elkarlan kasu konkretu batzuen plantan ematea partehartzaileen artean;
- Mugaz gaindiko elkarlana (deialdi ezberdinen aurkezpena, alde azkarrak, kasu konkretuak).

Jarraikitze hori aholkulari berezitu batek eraman du: Vincent Lalanne jauna, kultura eta arte alorretan berezitua, aholkularitza, expertisa, formakuntza eta lurraldeko kolektibitateen baita kultura eta soziokultura alorretan ari diren elkarten jarraikuntzan aditua.

Bilana egiten den azken eguna nekez programatua izan da, osasun egoerari lotua. Azkenean, 2021eko otsailaren 5an antolatu ahal izan da. Arratsaldean, partaideak gomitatuak izan dira jarraikitzearen bilana aurkezteko. EKE-ko zuzendari eta misio kargudunaz gain, OPALE egituratik (DLA-ren kultur baliabide zentroa) Lorelou Couëslan eta Departamenduko Kontseilutik Anatole Arestegui parte hartu dute baita ere.

## Komunikazioari laguntza

Mantenduak izan direlarik, EKE-k teknikoki edo diruz lagundu elkarte-gertakari guziak sistematikoki eke.eus atariko agendan sartuak izan dira eta asteroko berripaper berezi baten bidez hedatuak. Halere, Covid-19aren gatik, bi hedapen tresna horiek hetsi behar izan ditugu 2020ko martxotik abuztura, bai eta azarotik abendura ere, kultura ekitaldirik ez baitzen zabaltzeko.

Oroitaraz dezagun Eusko Jaurlaritzarekin dugun partaidetza baten karietara eke.eus webguneko agendako gertakari batzuk kulturklik.eus webgunean berriz hartuak direla ere. Bestalde, partaidetza beraren karietara garatu dugun gure agendako « Hegoaldean » atal bereziak ikuspen hobeagoa ematen die hego Euskal Herrian programatuak diren Iparraldeko artisten ikusgarriei.

Denbora berean, EKE-k kudeatu sare sozial desberdinek (Facebook, Twitter, Instagram, Mastodon...) gure harpidedunei bestelako informazio batzuk helarazteko aukera eskaintzen dute, hala nola gure elkartekideek antolatu proiektu edo casting deialdiak adibidez.

### **EKE-ko elkartekideei zuzendu idatzizko kontsulta**

Osasun krisiak eragin handiak ukan ditu kultura eta arte alorrean. Ondorioz, apiril hondarrean, EKE-k idatzizko kontsulta bat abiatu du, 2020an proiektu bat duten elkartekideei zuzendua izan dena. Galdesorta horren galderak bereziki elkarrearen egoeraren, pertsona eta diru baliabideen, proiektuen egoeraren diru beharren ingurukoak ziren. Orotara, 89 erantzunak aztertuak izan dira.

Bestalde, EKE-ko lantaldeak elkartekide guztiak telefonoz deitu ditu galdesortaren emaitzak zehazteko.

*Covid-19aren eraginak kultura alorrean deitu bilduma kontsultagarri da EKE-ren webgunean.*

## **2.3.2. Tokiko elkartearen proiektuetarako laguntza**

### **➤ Sorkuntza proiektuei laguntza**

#### **Proiektu gauzatuak eta diruztatuak**

##### **> ALDUDARRAK**

#### **Aldude inguruko gertakarien filmaketen baloratzea**

Publiko zabalarari eskaintzeko eta EKE-k eramaiten duen bilketa eta mediazio lanaren aberasteko, besteak beste Mintzoak plataforma elikatzeke edo « *Eleketa* » erakusketaren aberasteko.

##### **> ARTEGIA**

#### **Memoria sorkuntza radiofonikoari laguntza**

Autorearen ottoak, Jean, Alzheimer eritasunak unkiturik, bere aita eta anaiaren arrastatze eta nazi akanpamenduetan deportazioaren istoria kondatzen du, 70 urte pasatu eta. Bere anaia ez da itzuli. Lana horren bidez, Myriam Ayçaguer artistak bere ottoaren istorio liluragarria kondatzen du eta aldi berean denbora, eritsauna, orroitzapenen fabrikazioa eta memoriaren objektibotasuna galdezkatzen ditu. Aurkezpena 2021eko lehen seihilekoan aurreikusia da.

##### **> ATELIER**

#### **Aterpean 2020**

2020ko edizioan egonaldi bat antolatua izan da Lesakan, agorrilaren 3tik 21era. Led Silhouette Konpainiaren *Wild Street* ikusgarriaren lehen emanaldia irailaren 18an iragan da Donostian.

##### **> BASAIZEA KULTUR BATASUNA**

#### **Musikaldia 2020 – Urrearen sukarra zine-kontzertua**

Egoeragatik, hastapeneko proiektua ezeztatua izan da. Horren ordez, « Urmuga » kontzertua antolatua izan da uztailaren 26an hainbat artistekin (Donostiako Orfeoia, Et Incarnatus Orkestra, Niko Etxart, Xendarineko Ahizpak, Eltzegor, Mikel Urdangarin, Eñaut Elorrieta Baigorriko gaiteroak) eta Gorka Benitez, Juantxo Zeberio Etxetxipia, Ander Zulaika eta Itsaso Etxebeste musikarien laguntzarekin.

### > BATCHARTE DANTZA

#### *Sor[tu.e]gina* dantza sorkuntzari laguntza

2020an, ikerketa lana bururatua izan da, testu, argazki, film eta beste euskarri batzuen bilduz. Horrez gain, esperimentazio, improbisazio eta trukaketa saioak antolatuak izan dira parte hartzaile ezberdinekin.

### > BONBON NOIR ET CROTTE DE BIQUE

#### *Gure xaharak* antzerki sorkuntzari laguntza

Kanboko AIEC gelan urriaren 12tik 18ra egindako egonaldiako. Zahar etxe baten artatzaile batzuen bitartez, gure gizarte osoan hunkitzen duen galdera hau pausatzen da: gure xaharrekin zer egiten dugu? Tauta zuzendaritza: Maika Etxekopar. Jokoa: Ahlam Slama, Battitt Halsouet, Amaia Irazabal, Bruno Hollemaert, eta Maika Etxekopar. Estrenaldia 2021ean.

### > COMPAGNIE JOUR DE FÊTE

#### *Besteen kalea* sorkuntzari laguntza

*Besteen kalea* antzerkia ipuinekin, musika zuzenean, kantuekin eta majiarekin eginga da. Bi pertsonai kontrajarriek hiru ipuin kontatzen dituzte baztertze soziala, esperantza, giza elkarretaratzea, poesiaren amodioa eta kulturari hurbiltzeko parada gaiak aipatuz. Alaia Berhonde eta Sébastien Desgrans antzezleek dute lantzen Jour de Fête Konpainiaren kanpoko begiradak lagundurik. Estrenaldia abenduaren 3an izan behar zen Baionako Albiza gelan bainan izurriteak 2021 azarora gibelatu egin du.

### > ELIRALE

#### Konpainiaren egitasmo orokorraren sostengatzea

Oroz gainetik hiru alor sostengatuak: sorkuntza, hedapena Departamendutik kanpo, eta euskarazko arartekolaritza lanak. *O!* eta *Fuga* sorkuntzak lagunduak izan dira besteak beste.

### > HERRI SOINU

#### « Musika eta dantza, ohizko musika tresnen inguruan » ikuskizuna

Jokin Irungaray-ek kudeaturik. 16 musikari eta dantzariekin, nola profesionalak, hala amaturrak. Lehena 2021eko asmatua da.

### > IPARRALDEKO DANTZARIEN BILTZARRA

#### Federazioaren egitasmo orokorraren sostengatzea

Oroz gainetik bi alor sostengatuak: formakuntzarako eta transmisiorako sail ezberdinak, eta hedapena (Dantza sarean, Zabala modulua, EAC egitasmoak, Fofu, Dantzari Ttiki, Musikari Ttiki, Dantzari eguna, Harri Xuri dantzan...).

### > ITZULI

#### *Oihana* antzerki sorkuntza egonaldiako laguntza

Martxuetako Herriko gelan iragan dena irailaren 14etik 19ra. Zuzendaritza: Maryse Urruty. Antzerkilariak: Barbara Rivas, Oihana Olasagasti, eta Maryse Urruty. Estrenaldia: 2022ko otsailan Baionako Antzokian.

### > KILIKA

#### *La Marche d'Olentzero* sorkuntzari laguntza

Egitasmoaren inguruan aurreikusitako mediazio lan baten kari, Estampe Laboratorioaren Luc Médinal argazkilariak erreportai fotografiko bat eraman du txotxongiloaren sorkuntzari buruzko erakusketa baten aurkezteko. Hedapena 2021eko urtean zehar proposatuko da.

## > L'ENFANCE DE L'ART

### *Sous les pas de Roland, pour une histoire de l'art en Euskal Herria* mintzaldia

Jean-Yves Roques eta Pantxix Bidart-ek hitza eta kantua uztartu dute, Euskal Herriko historia artearen bidez kontatzeko. Mintzaldi horren idazketa urtariletik agorrilera arte iragan da eta bere estreinaldia irailaren 18an izan da Baionako mediatekan.

## > LITTORAL BASQUE ATALAIA

### « Oroimenen kartografia » deitu sorkuntzari laguntza

Lekukotasunak biltzea, bereziki Urruñan, Putillena EPHAD egituraren eta sorkuntza artistikoaren bideratzea, Vents et Marées Konpainiarekin.

### Euskal autore baten hilabeteko egonaldiarentzat laguntza

Nekatoenea egoitzan, Hendaian, 2020ko azaroaren 23tik goiti. Epaimahaiak hautatu du Nahia Zubeldia.

## > MUSIKA TRUKE

### Nola deitu sorkuntzaren sostengatzea

Dantza, hip hopa, musika elektronikoa eta ohizkoa nahasiz. Egonaldiak udaberrian iragan dira eta sorkuntzaren estreina 2020eko apirilean izan behar zen, Donibane Garazin. 2021era gibelatua da

## > SARDE SARDEXKA

### Erromako zubia sorkuntzari laguntza

Ipuin, kamishibai eta musika ikusgarri honek, Ezti, sorgindutako erle baten istorioa kontatzen du, euskal mendietako ondare gastronomia goraiatuz. 6 urtetik goitiko publikoari zuzendua. Autore eta antzezlea: Maryse Urruty. Ilustratzailea: Viviane Michel.

## > SO.K

### NeoK dantza ikusgarriari laguntza

Kotilun Gorriren inguruko sorkuntza, zazpi dantzarik euskal dantza eta garaikidea uztartzen dituen ekitaldian parte hartu dute. Idazketa eta taula zuzendariak: Laetitia Cheverry eta Julien Corbineau. Lehena, 2020ko urriaren 25ean Miarritzen iragaitekoa zen. 2021era gibelatua izan da.

## > SÜ AZIA

### Xiberokast

Sostengua Xiberoko ahozko ondarearen balorapenarentzat, podcast euskarrien bitartez.

## > URZAIZ

### Ortzaizeko kabalkada

Herritarrak kabalkadaren prestatzen hasiak ziren 2019an eta segitu dute 2020an. Azken urte hau berezia izan baldin bada ere (bi konfinamendu + Covid kasuak), ikusgarriaren emaitako prest ziren denak (dantzari, musikari, antzerkilari, dendari) bigarren konfinamenduaren erabakia hartua izan delarik. Iraileko aurreikusia zen ikusgarria azaro hastapenera eta ondotik 2021ko ekainera pusatu behar izan dute antolatzailek. 120 partehartzaileak berriz lotzen dira lanari apirila erditsutik hara.



## > USOPOP

### Usopop Diskak label diskografiko egituratzeari laguntza

« Mapa galduak » egonaldi eta kontzertu egitasmoa 2021 era gibelatu da. Usopop Diskak label diskografiko egituratzeari laguntza eman zaio, elkartek lanean segitu baitu izurriteari egokituz. 2015ean elkartek Usopop Diskak ekimena abiatu du Aguxtin Alkhat-en lehen lan laburra plazaratuz. Ondotik, zigiluak Paxkal Irigoyen, Unama eta Orbel taldeen disken ekoizpenak zabaltzeko parada ukan du. 2020an, beste hiru taldeen ekoizpenak sustatu ditu hala nola Rüdiger, La Compagnie des Musiques Télésopiques eta Donostiako Bananas.

## > UZTARO

### La Caminante

« Caminante » deitu zentroen babesean dauden egoiliarrekin arte tailerrak, arte bisualen inguruan. Artistak: Gonzalo Etcheverria, Patxi Laskarai eta beste, helburua delarik ondotik erakusketa baten egitea.

## > ZTK / BELARRI

### BBAX taldearen *t'mAmAztAng't* diskoa

ZTK elkartek Belarri labelari ardura utzi dio. Horregatik Belarri BBAX taldearen *t'mAmAztAng't* diskoa ekoiztu egin du. Mirentxu Aguerre, Pantxix Bidart, Marie Hirigoyen Bidart eta Paxkal Indo dute taldea osatzen. Diskoa 2020ko irailaren 6an argitaratu eta aurkeztu da Saran Idazleen Biltzarra ekitaldiaren kari.

## Proiektu ezeztatuak edo gibelatuak, baina diruztatuak, gastu artistikoak ukan dituztelako

## > ARROLA DANTZA TALDEA

### *Izan baita* dantza sorkuntzari laguntza

Baigorriko Arrola dantza taldeak, Garaztarrak taldearen eta Baztango dantzarien laguntzarekin, *Izan baita* ikusgarria sortu behar zuen. Osasun egoeratik, proiektua gibelatua izan da.

Halere, proiektua diruztatua izan da izan diren gastu artistikoak estaltzeko.

## Ez ohiko laguntza ukan duten proiektuak (gehigarria)

## > ARCAD

### Arte bisualetako artistendako elkartasun-sostengua

Covid-19 izurriteak sektore honetako hainbat eragile hunki ditu. Ondorioz, EKE-k hiru ekintza ezberdin lagundu ditu:

- Artisten sostengu fondoan parte hartzea: « Ma collection à tout prix » deitu ekitaldian, euskal artisten laguntzea, hauen artean: Nadine Arrieta, Ihintza Chloé Hargous, Bruno Laxague, Camille Masson Talansier, eta Delphine Tambourindéguy;
- Euskal lau artisten argazki erakusketen laguntzea: Nadine Arrieta (Baionako portua), Ihintza Chloé Hargous (argazkiak eta euskal poesiak) Olivier Iglesias (Pottokak), Jean Pierre Rousset (Konpostelako bideak);
- Gaspesiako eta Euskal Herriko artista egonaldien babestea.

## > BILAKA

### **Bilaka artista Kolektiboaren egitasmo orokorraren laguntza**

Musika eta koregrafia ikerketak, ohizko topaketak, sorkuntza eta hedapena, Euskal Herrian eta kanpoan. Hiru koregrafoekin lan egin du: Igor Calonge, Eneko Gil eta Martin Harriague.

Ez ohiko laguntza berezi bat gainditua izan da urte honetan, Covid-19 izurritearengatik jasan diru sartzeen murrizte handiaren zati bat konpentsatzeko.

### **Proiektu ezeztatuak edo gibelatuak eta diruztatu gabeak**

> **HEBENTIK** - Züek Heben 2020

> **JOSTAKIN** - Antzerki baten sorkuntza

> **THE RODEO IDIOT ENGINE** - Orbel taldearen egonaldia eta disko berriaren ekoizpena

> **XIBEROKO JAUNA** - *Abdelkader pastoral*

## **Hedapen proiektuei laguntza**

### **Proiektu gauzatuak eta diruztatuak**

## > ARGIAN

#### **2020ko argazkiaren Biltzarra**

2020ko argazki lehiaketaren gaia irribarrea izan da. Irailean Donibane Garaziko Herriko Etxean instalatu erakusketari esker, publikoak bidali izan diren obrak deskubritu ditu.

## > ARTETXEA

#### **Kantaldi programazioari laguntza**

Herriko Artetxea gelaren aitzinean agorrilaren 28an aurkeztutako Ruper Ordorika musikariaren eta Aire Ahizpak kantarien kantaldiari laguntza.

## > BEGIRADA

#### **Laguntza argazkilarien erakusketentzat**

Osasun egoeratik, egitaraua berlandua izan da eta erakusketen instalazioa 2020ko uztailera gibelatua izan da. Horrez gain, bitartekaritza proiektuak proposatuak izan dira.

## > BELARRI

#### **BBXA taldearen kontzertuei laguntza (mugikortasunari laguntza Iparraldetik kanpo)**

Gallarta (10/9) eta Ordizian (11/15) eginiko kontzertuei laguntza.

## > BILTZAR DES ÉCRIVAINS DU PAYS BASQUE

#### **Sarako Idazleen Biltzarra**

37. edizioa irailaren 6an iragan da. Azokaren gain, liburu aurkezpenak, topaketak karpan iragan dira eta haurrentzat, Kiribil Konpainiak animazioak proposatu ditu. Covidagatik egun profesionala ezeztatua da eta 2021ean antolatuko da.

## > BIL XOKUA

### Musikaren Eguneako artxiboen baloratzea

Urdiñarbeko Musikaren Eguneako artxibo ezberdinen (argazkiak, lekukotasunak, komunikazio euskarriak...) balorapenean (numerizazioa) parte hartzea.

## > BORDERLINE FABRIKA

### Borderline Fabrika gunearen egituratzeari laguntza

Izurriteak programazioa urratu ondoren, Hendaiaiko fabrika artistikoaren egituratzeari eta garapenari sustengua ematea erabaki da, batez ere publiko guzietan eskaini nahi duen euskal kultura anitza baten alde ari delarik.

## > CINÉMA & CULTURES

### Euskal zinema hedapenari laguntza

« Rencontres sur les Docks » festibalaren kari, Lander Garro eta Gaizka Aranguren-en presentzian *Bi urte, lau hilabete eta egun bat* dokumentala, baita ere Jon Garaño eta Laurent Dufrêche-n presentzian *La trinchera infinita* fikziozko filma luzea estreinatu dira irailaren 9 eta 10ean. Urriaren 10ean, Oskar Alegria-ren *Zumiriki* obra estrenatu da Iparraldean, filma egilearekin.

### Zineskola irudi heziketa dispositiboaren segipen teknikoari laguntza

Elkarteak dispositiboaren filmen aukeraketan parte hartzen du, proiektzio eskubideak negoziatzen ditu filmen banatzaileekin eta filmen kopiak (DCP) dispositibo honetan parte hartzen duten zinema geleri hedatzen dizkie. Berrogeita hamar erakasleentzat Kanboko L'Aiglon zinema gelan antolatu formakuntza egunarako (otsailaren 19an) balio izan du lana horrek beste emanaldiak, lurraldeko zine geletan ikasleentzat, ezeztatu baitira izurritearengatik.

## > CINÉVASION

### Euskal zinema hedapenari laguntza

Lander Garro eta Gaizka Aranguren-en presentzian *Bi urte, lau hilabete, eta egun bat* filmaren emanaldiak honako zinemetan aurkeztu dira: Hazparneko Haritz Barne (9/20), Donapaleuko Complexe Saint-Louis (9/24), Donibane Lohizuneko Le Sélect (9/29), Hendaiaiko Les Variétés (10/3), Mauleko Maule Baitha (10/8), Kanboko L'Aiglon (10/15), Donibane Garaziko Le Vauban (10/16). Orotara, 600 ikusle baino gehiago bildu dira.

Bestalde, Donibane Lohizuneko « Festival International du Film » kari, Lara Izagirre-ren presentzian *Nora* filmaren proiektzioa sustatu da Kanboko L'Aiglon zinema gelan urriaren 6an, 40 bat pertsona bilduz.

## > EIHARTZEA KULTUR ETXEA

### « Zinegin » festibala

Egoeragatik, « Zinegin » festibalaren edizioa sarean antolatua izan da: azken urteko filmen katalagoa ikusgai; laburmetraien gaualdia; mahain ingurua Zinebilerarekin; Urtzi Urkizuren mintzaldia.

## > EUSKAL IRRATIAK

### « Kultur Ale » eta « Kantuz kantu » irrati-emankizunen sostengatzea

Euskal kulturaren ekintza ezberdinak aipatzeko eta euskal kantuen hedapena baloratzeko.

## > EZIN ASEAK

### « Koruak » festibalarentzat laguntza

2020ko urriaren 23tik 25era Baionan iragan behar zen; besteak beste izanen ziren Euskal Herriko abesbatzak eta mundukoak. Covid-19 izurritearengatik, ekitaldi hau geroratua izan da, baina prestakuntza gastuak izan dira eta Tornaveus, Kataluniako polifonien kontzertua mantendua izan zen 2020ko urriaren 25ean, Baionako Katedralean. Bestalde, haurrentzako kantu sorkuntza bat manatua izan zen Philippe Mendes konpositoreari, Sustrai Colina bertsulariak hitzak sortu dituelarik. Sorkuntza hau Euskal kultur erakundearen 30 urtekari ekoiztua izan da.

## > FSE LA CITADELLE

### *Iparraguirreri omenaldia*

José Maria Iparraguirre-ren sortegunaren urtemugaren ospatzeko, Urretxu, Hendaia, Baigorri eta Garaziko kolegioak eta abesbatzek musikagilearen obra landu dute, Javier eta Nerea Arratibel, Alaitz Guridi, Jose San Miguel eta Denise Olhagaray-ren zuzendaritzapean. Lehen kontzertua Hendaian eskaini dute martxoaren 12an, Petti, Maddi Zubeldia eta Maddalen Arzallus-en laguntzarekin. Ondoko emanaldiak ezeztatuak izan dira osasun egoeragatik.

## > HATSA

### Hatsaren poesia 2020

Osasun egoeragatik, aurreikusia zen egitaraua aldatua izan da. Besteak beste, ondoko ekitaldiak antolatuak izan dira, presentzian edo telematikoa: olerki bildumaren argitaratzea eta topaketa eguna.

## > HEBENTIK

### « Hebenko ta Hanko » proiektuari laguntza

Hebentikenean programazio osoa izurriteak urratu, elkarteak « Hebenko ta Hanko » artista topaketa antolatzea lortu du. Hor Hor taldeko Maika Etxekopar, Elsa Oljar-Inés, Claudine Arhancet kantariak eta Duo du Bas Elsa Corre eta Hélène Jacquilot antzerkilarien arteko egonaldiaren ondotik, ikusgarri aurkezpenak Irabarneko Jauregiaren inguruetan aurkezpenak lagundu dira.

## > HERRI SOINU

### « Hartzaro » festibala

« Hartzaro » festibala otsailaren 1etik 25era iragan zen, Uztaritzen. Hainbat kontzertu (Habia, Oldarra, Uztaritzeko txistulariak, Tutak et Zirt Zart, Zea Mays, The Very Small orchestra, Txakatuk...) eta dantza ikusgarriak (Ezpela, Leinua, Tio Teronen semeak, Izartxo...) antolatuak izan dira. « *Itzaletik argira* » erakusketa Lapurdi gelan instalatua izan da.

## > IKAS

### Zineskola dispositiborako tresna pedagogiko baten ekoizpenari laguntza

Tresna pedagogiko transmedia eta digitala sorreraren koordinakuntza horrek lehen mailako euskara erakasleentzat egin da aurtengo Zineskola dispositiboaren kari. *Arratoi pirata* eta *Kécity* filmekin loturik, eduki pedagogikoak Kanboko L'Aiglon zinema gelan aurkeztu dira urteko otsailaren 19an, sarean emanak izan aitzin.

## > IPARRA HEGOA

### **Laguntza euskal kulturarentzat alde eta mugazgandiko harremanen indartzeko**

Covid-19 izurritearengatik, ez dira ekitaldi guztiak antolatuak izan baina halere zenbait obratu dira, hala nola bertso saioa urrian (Amets Arzallus, Irati Urdanpilleta, Iker Zubeldia eta Eneko Araiztegi-rekin, Kuxkuxtu txarangak lagundua), eta Eguberri inguruan Pontx pailazoaren ikusgarria.

## > ITSAS BEGIA

### **« Urpeko Ondarea » egitasmoari laguntza (urpeko arkeologiaren karta baten sortzeko egitasmoa)**

2020an, helburua zen lau pertsonen kontaktatzea eta filmatzea beren jakitatea biltzeko. Nahiz eta Covid-ak ez duen lana errextu, lortu dute egitasmoa bururaino eramaitea: Pantxoa Larreguy filmatua izan da 2020ko ekainean Ziburun, Roman Meyner ilabete berean Donibane-Lohizunen, Eric Dupre Moretti azaroan Tarnosen eta Julien Julia Urruñan (azaroan hau ere).

## > ITZAL AKTIBOA

### **Erakusketa garaikideak**

Pierre Gauthier-Dubédat eta Josette Dacosta-ren erakusketak lagunduak izan dira, 2020ko martxotik urria arte, Donibane Garazin.

## > LAPURDI 1609

### **AztiHitza**

Asisko Urmeneta-k, marrazkilari eta idazleak, Agosti Xaho-ren bizia kontatu du 2020ko urtarrilaren 20an, Daniel Arbeletxe, Jean-Mixel Bedaxagar, Jean-Marie Irigoien, Mariañes Gorostiaga eta bertsulari batzuen laguntzarekin.

## > LAU HAIZETARA

### **Kultura trukaketak Lau Haizetara eta Marseille Hiriko Cantilou-Corail abesbatzen artean**

Bi kontzertu emanak izan dira: urriaren 23an, Lehuntzeko elizan; eta urriaren 24ean Baionako Katedraleko kalostrepean.

## > LES MOISSONS CLOWNS

### **« Clown ondoan izate » egitasmoari sustengua**

Baionako Marie Caudron zahar etxean. Urtarrilaren 24ean eta otsailaren 7an, klun bikote batek bost eta zazpi pertsona artean heien logeletan indibidualki bisitatu ditu baita ere taldezka hamabost bat egoiliar bildurik.

## > LIBREPLUME

### **Euskaraz irakur**

Urtearen zehar, Libreplume elkarteak haur eta burasoei zuzendu tailerrak proposatzen ditu, euskarazko irakurketa bultzatzeko. Covidak eraginak ukan ditu tailer horien antolaketan.

### **Le Petit Bouquinvillle**

Festibalaren antolaketa urrira gibelatua izan da eta egitaraua egoerari egokitua izan da: marrazki tailerra Maite Gurrutxaga-rekin; irakurketak Maite Lassus-ekin; tailer-topaketa Pello Añorga-rekin.

## > MAIATZ

### Euskal literaturaren hedapena

Osasun egoeragatik, aurreikusia zen egitaraua egikotua izan da. Ekitaldiak presentzian edo telematikoa antolatuak izan dira: idazleekin literatur topaketak; Maiatzaldia; 70 eta 71. Maiatz aldizkariaren argitaratzea.

## > MARMAU

### Marmau, zizelkaritza ibilbidea

Osasun egoeragatik, hastapeneko egitaraua egikotua izan da. Agorrilaren 29an, artistek ibilbidea bizi dute, tailerrak, bisitak edo Land Art sorkuntzak proposatuz.

## > MIXEL LABEGUERIE'REN LAGUNAK

### Mixel Labeguerie euskaltzalearentzat ekitaldi bereziak antolatzea urte batez

Diska baten grabaketa 20 kanturekin, Peyo Labeguerie-k kantaturik, eta hedapen ezberdinak, oroz gainetik kontzertuen bitartez. Diska argitaratua izan da 2020ko azaroan, eta otsailean hasi dira kontzertuak.

## > MINTZALASAI

### Euskal artisten programazioa

« Mintzalasai » festibalaren 9. edizioa irailaren 21etik 27ra iragan da. Tailer, mintzaldi eta bisiten antolatzeaz gain, ikusgarriak programatuak izan dira, besteak beste, Eleka Konpainiaren *Ipuin sortak*; *Tomiris* antzerkia; eta *Katalingorri andereñoa*.

## > MUNDUKO MUSIKEN ETXEA

### « Haizebegi » festibalean parte hartzea

« Haizebegi » festibalean parte hartzea, 2020ko urriaren 8tik 18ra, Baiona, Tarnose eta Hendaiako Hirietan, besteak beste ekintza hauek sostengatuz:

- *Nora* filma, Lara Izaguirre egilearen presentziarekin (bapateko itzulpena segurtatua izan da filmaren ondotik);
- Amets Arzallus bertsulariak *Minan* idatzi duen liburua aurkeztuko du (euskaraz, bapateko itzulpenarekin);
- mahai inguruak migrazioaz eta hizkuntzen mugimenduetaz: Lucien Etxezaharreta, Julie Mujica (Ed. Matahami), Ibrahima Balde, A. Arzallus, Pierre Lafont, besteak beste;
- partaidetza Musikene, Donostiako goi-mailako musika eskolarekin, musika eta autismoaren gaien inguruan;
- Myriam Ayçaguer zinegileak sortu *La dramatique impossible* sorkuntza radiofonikoa, Donibane Lohizune inguruko itsasgintzaz eta arrantzaz;
- X. Videgain unibertsitariaren mintzaldia xamanismoaz Euskal Herrian.

## > MUSIKAS

### Musikas-en ipuinak

2020ko otsailaren 8an, Musikas eskolako ikasle eta irakasleek kontzertu bat eskaini dute. Eszenatokian, gazteak eta ez hain gazteak, ohiko musika tresnak eta ez ohikoak elkartu dira.

## > OLENTZEROREN LAGUNAK

### Olentzero euskarria

Laguntza euskal kulturaren bulgarizazio lanabesen sorreran: Olentzero pertsonaren inguruko liburuxka bat, ludikoa eta interaktiboa (ikerketa lanak 2019an hasirik, liburua 2020ko eguberriko ateratua).

### > ROUGE ELEA

#### Egonaldiari laguntza eta mugikortasunari laguntza Iparraldetik kanpo

Rouge Elea Konpainiari laguntza Ozaetako Garaionen egindako egonaldia eta aurkeztutako emanaldirako irailaren 5ean (*Zuhaitzarekin solasean*) ; Pariseko 16. « Village de Cirque » festibalean parte hartzeagatik irailaren 19 eta 20an; baita ere Seine et Marne-eko 2. « We Cirk » festibalean aurkeztu saioentzat irailaren 26 eta 27an.

### > SÜ AZIA

#### Euskal kulturari lotu mintzaldi ezberdinen antolaketan parte hartzea

Mintzalarietan bertzeak bertze: Ekaitz Santazilia, Anuntxi Arana, Philippe Etchegoyhen, Allande Errezarret, eta Marikita Tambourin.

### > THE RODEO IDIOT ENGINE

#### Orbel taldearen kontzertua (mugikortasunari laguntza Iparraldetik kanpo)

Mutrikuko Rock Kolektiboak antolatu 16. Abendurock ekitaldian Orbel taldearen parte hartzeari laguntza, abenduaren 20an Kiroldegian aurkeztutako kontzertuarentzat.

### > TUNTUNA

#### Hogeita hiru

2020an, euskal kantuari eta musikari lotu hainbat ekitaldi antolatu ditu Tuntuna elkarteak: « Baionan kantuz », « Txistu kalean »...

### > UNIVERSITÉ POPULAIRE DU PAYS BASQUE

#### Ikerketa etno-arkeologikoa Hergarain

Helburua zen Hergarai aldeko megalitismoaz eginak diren ikerketa arkeologikoak biztanleen ahozko memoriarekin parez pare emaitza. Proiektu kolektibo batean kokatzen da hau (PCR mégalithisme et territoires dans les Pyrénées-Occidentales). Bi elgarritzeta egin dira 2020an: lehena Duzunaritzen bizi den Mattin Errecart-ekin, honek mekanizatzearen aldaketak ezagutu baititu, bigarrena Joseph Goyheneix Lekumberriko auzapezarekin (aitamen laborantxaren segida hartu duena herrian).

### > ZABALIK

#### Otsail ostegunak

Otsaileko lau ostegunetan, Zabalik elkarteak gai ezberdinei buruzko mintzaldiak proposatu zituen:

- *Aljeriako gerla euskaldunen memorian*. Hizlariak: Piarres Aintziart, Xipri Arbelbide eta Jean-Louis Davant
- *Leiho hormatua; sorginkeria prozesu bat Amikuzen 1370. urtean*. Hizlaria: Ander Berrojalbiz
- *Euskararen haurride, lehengusu eta askaziak*. Hizlaria: Eñaut Etxamendi
- *Komunitatea hats-bahiturik; euskal komunitateak zerendako sufritzen duen, lekuko bati esker, ulertzeko giltzak*. Hizlaria: Ainize Madariaga

*Etxetiargoa Amikuzen mintzaldiaren programazioa eta literatur topaketen antolaketa gibelatuak izan da osasun egoeragatik.*

## **Proiektu ezeztatuak edo gibelatuak, baina diruztatuak, gastu artistikoak ukan dituztelako**

### **> ABOTIA**

#### **« Xiru » festibalari laguntza**

Azkenean bardoei zuzendutako festibala ezeztatu izan zen izurritearengatik. Hala ere, 2020ko ediziorako ekitaldi zenbait gauzatu edo prestatu dira: *Gaztelondon zer berri* emanaldia eskoletako hurrei erakutsi da, *Gartxot* filmaren eskubideak ordaindu, eta Iñaki Olazabalen eskultura prestatu.

### **> ASSOCIATION NATIONALE DU POTTOK**

#### **Pottokaren eguna - Laguntza euskal artisten programazioarentzat**

2021era gibelatua. Halere, proiektua diruztatua izan da izan diren gastu artistikoak estaltzeko.

### **> BORDALEKO EUSKAL ETXEA**

#### **Euskal kulturaren hedapena sostengatzeko Bordelen**

Covid-19 izurritearengatik, aitzin-ikusiak ziren gertakari zenbait ezeztatuak izan dira. Halere elkarteak euskal artistak sostengatu nahi ditu egoera honen aurrean. Hori dela eta, Kalakan hirukotea hautatu dute kontzertu baten emateko, 2020ko abenduaren 3an, Bordelen (Grand-Parc gelan).

### **> EUSKAL HERRIA ZUZENEAN**

#### **« EHZ » festibala**

2020 urteko festibalaren prestakuntzari sustengua ematea erabaki da nahiz eta ezeztatua izan ekaineko eta urriko gibelatze ondoren Covid-19aren eraginez.

### **> EZKANDRAI**

#### **« Errobiko festibala »-rentzat laguntza**

Covid-19 izurritearengatik festibala bera ezeztatua izan da, baina hainbat ekitaldi proposatu dituzte 2020ko agorrila eta udazkenean, hauen artean: agorrilaren 8an, Itsasun: « Airatze-Envol » sorkuntza; irailaren 7tik urriaren 10era, Cité des Arts Baionan: erakusketak, ikusgarriak (Beñat Achiary, Fred Faure, Kevin Bucket, Julie Calbète, Denis Laborde...).

#### **« Etiopikoak » festibalarentzat laguntza**

2020ko martxoaren 25tik 28ra, Baionan iragan behar zen : Jérémie Garat, Olmaz hirukotea, Itxaro Borda, Julen Axiari, Beñat Axiari, J.C. Irigoyen, Belugueta, Katerina Fotinaki, besteak beste artistekin.

Covidagatik 2020ko edizioa ezeztatua izan da. Halere, proiektua diruztatua izan da izan diren gastu artistikoak estaltzeko.

### **> HERRI SOINU**

#### **« Hartza Altzoan » festibalarentzat laguntza**

« Hartza Altzoan » festibalean musika eta dantza eskolak, bai eta ikastetxeak dira ekitaldien protagonista nagusiak. Covidagatik 2020ko edizioa ezeztatua izan da. Halere, proiektua diruztatua izan da izan diren gastu artistikoak estaltzeko.

#### **« Herri Uzta » festibalaren antolaketari laguntza**

« Herri Uzta » festibala 2020ko urriaren 8tik 13ra Uztaritzen eta Arrangoitzen iragan behar zen. Covidagatik 2020ko edizioa ezeztatua izan da. Halere, proiektua diruztatua izan da izan diren gastu artistikoak estaltzeko.



## **> KIRIBIL**

### **« Ikusi Mikusi, euskarazko haur eta gazte literatura azoka »**

Galtzagorri elkarte eta Pamiela argitaletxearekin partzaidetzan, Kiribil Konpainiak lehen aldiz « Ikusi Mikusi, euskarazko haur eta gazte literatura azoka » antolatu behar zuen. Osasun krisia dela eta, proiektua 2021era gibelatua izan da.

Halere, proiektua diruztatua izan da izan diren gastu artistikoak estaltzeko.

## **> LES LABOURDINS**

### **« Lapurdiko harmonia » festibalarentzat laguntza**

2020ko maiatzean iragan behar zen festibala, Uztaritzen. 2021era gibelatua izan da Covidagatik. Halere, proiektua diruztatua izan da izan diren gastu artistikoak estaltzeko.

## **> LURRAMA**

### **2020ko Lurrama**

Ekitaldi orokorra ezeztatua izan da, Covid-19 izurritearengatik. Halere, ekitaldi bereziak antolatuak izan dira (mintzaldiak, eztabaidak eta proiektioak) azaroaren 12, 14 eta 15ean, Itsasun, Donibane Garazin eta Biarritzen. EKE-k deliberatu du ekitaldi horien sostengatzea, bai eta ere orokorkiago Lurrama azoka.

## **> UR BEGI**

### **Ekitaldi kulturalak**

Urtean zehar, Ur begi elkarteak hainbat ekitaldi proposatu behar zuen Errobiko lurraldean. Osasun egoeragatik, proiektu osoa ezeztatua izan da. Halere, proiektua diruztatua izan da izan diren gastu artistikoak estaltzeko.

## **Ez ohiko laguntza ukan duten proiektuak (gehigarria)**

## **> ALDUDARRAK**

### **« Eztitxu-Robles kantatuz » egitasmoarentzat laguntza**

Kontzertuak iragan dira 2020ko urriaren 24 eta 25ean, Baigorriin. Covid-19 izurritearekin, usaiako publikoa mugatua izan da, osasun-krisiarentzat Gobernuak finkatu araudi batzuegatik eta ondorioz, diru sartzeak gutitu dira. Egoera hori kontutan harturik, EKE-k indar berezi bat egin du, bereziki artisten ordainketa ahal bezain elkartasunezkoa izateko.

## **> BERTSULARIEN LAGUNAK**

### **Bertsularitza sustatu eta garatu**

EKE-k Bertsularien Lagunak elkarteak laguntzen du, urte osoan zehar, bertsularitzaren sustatzen eta garatzen, ekimen hauen bidez:

- lehiaketa eta xapelketen antolakuntzen bidez. 2020ko Banakako XILABA xapelketa irailaren 19an hasi zen baina ez zen bururatu ahal izan Covid krisiagatik. Parte hartu zuten 28 bertsulariek 4 kanporaketak (Hiriburu, Muskildi, Ainhoa, Larzabale) eta 3 final-herenak (Senpere, Sohüta, Izturitze) jokatu zituzten.

- Bertsu-saioen laguntzea (bertsulariak ordaintzeko diru-laguntza eskainiz). Maleruski Covid izurriteak zuzenki eragin du hauen antolaketan, plazak erori baitira eta saio frango ezeztatu.

Egoera berezi horretan, Bertsularien Lagunak elkarteak egokitu behar izan du, ausardiz jokatzeko eta bere usaiatzeko motibazioarekin, EKE-k bere laguntza bermatzen ziola. 2020 urte hastapenean, EKE-k

Bertsularien Lagunak elkartearekin bi urteko (2020-2021) lankidetzaz hitzarmena izenpetu du, elkarteak daraman bertsularitzaren hedapena molde egonkor eta iraunkorrean sustatu ahal izateko. Bestalde, ez ohiko laguntza berezi bat gainditua izan da urte honetan, Covid-19 izurritearengatik jasan diru sartzeen murrizte handiaren zati bat konpentsatzeko.

### > IPARRALDEKO ABESBATZEN ELKARTEA

**Laguntza berezia Federazioko abesbatzei**

Haien koro zuzendarien ordainketan parte hartzeko, Covid-19 izurritearen osasun-krisia denboran: trukaketa, kontzertu, formakuntzak, etabar ezeztatuak.

### > QUARTIER LATIN

**Luna Negra gelan, euskal artisten hedapenean parte hartzea**

2020an, hainbat kontzertu ezeztatuak izan dira (Hiru Soinu, Antton Larrandaburu, Bilaka, Pauline eta Juliette, Peio Ospital). Bakarrik, Jon Itcaina hirukotea eta Otxalde taldea aritu dira. EKE-k ezohizko laguntza gehigarria eman dio elkarteari, aitzinikusiak ziren kontzertuen gastuetan parte hartzeko, izurritearengatik ezeztatuak izan arren.

### **Proiektu ezeztatuak edo gibelatuak eta diruztatu gabeak**

- > **ACCENTS DU SUD** - « Hestiv'Oc » festibala
- > **AMICALE DU PETIT BAYONNE** - Txistularien elkarretaratzea
- > **ANGELUKO IKASLEAK** - Mintzaldi zikloa
- > **ARRAGA ABESBATZA** - Otxote festibala
- > **BIARRITZ CULTURE** - « Bi Harriz Lau Xori » festibala
- > **BI'ARTE** - *Zubilanak eginez* (mugikortasunari laguntza Iparraldetik kanpo)
- > **BIGA BAI** - Kultur egunak
- > **BUNUZTAR XORIAK** - Festibal batean parte hartzea (mugikortasunari laguntza Iparraldetik kanpo)
- > **EUSKAL HAZIAK** - Ikusgarri baten programazioa
- > **EUSKAL HERRIKO TXISTULARI ELKARTEA** - Txistularien elkarretaratzea
- > **EUSKAL KULTUR ELKARTEA** - Kantaldi eta beste kultur ekitaldi baten antolaketa
- > **GOIZ ARGİ** - Artea baserrialdean
- > **HEBENTIK** - Hebentik Harat
- > **KORNELIO** - Akordeoiaren eguna
- > **LAGUNT ETA MAITA** - Asteburu kulturala
- > **MANEX GOIENETXE KULTUR ETXEA** - Donibaneko suak
- > **OTE LORE** - 2020ko Jon Doni Martineko bestak
- > **PINPULKA** - « Jokoz kanpo »
- > **SEASKA** - Glisseguna eta Olentzero park
- > **SOINUBILA** - Kultur astea
- > **ZORTZIKO** - Euskal antzerkiaren hedapena sostengatzea

### 3. EUSKAL KULTURA HEDATU

#### 3.1. Lehenetasuna eman partaidetza lanari eta gaitasunen sarean ezartzeari

##### 3.1.1. Lankidetzen azkartzea labelizatuak diren lurraldeko egiturekin

###### ➤ *Akitania Hegoaldeko Eszena nazionala*

###### ***Pozgarria da* musika eskabidearen ko-ekoizpena (Bitoriano Gandiaga, euskal poetaren hitzetan oinarritua)**

Akitania Hegoaldeko Eszena nazionalak eta Euskal kultur erakundeak – hogeita hamar urteburu kari – musika sorkuntza eskabidea egin diote Petar Klanac, euskal-kroatiar ereslariari. Sorkuntza garaikidea izanen da, « Ondarea eta sorkuntza » bikotearen leloari jarraikiz, honek oiartzun gisa duelarik euskal Etnopoloaren hari gorria. Musika sorkuntza hau Stéphane Garin konpositoreak sortu Ensemble O taldeak interpretatuko du.

Lehen emanaldia 2020ko azaroaren 21ean emana izan beharra zen Baionako antzokian, baina Covid izurritearengatik 2021era geroratua da. Halere artistek egonaldia egin dute eta *Pozgarria da* obraren ekoizpen diskografikoa segurtatuko du Belarri diska argitaletxeak.

###### ***Burdina* ikusgarriaren ko-hedapena**

Baionako antzokian, 2020ko otsailaren 27an, Adriana Bilbao, flamenco dantzariarekin, Beñat Achiary eta Raúl Micó, Euskal Herriko eta Andaluziako kantariekin, Guillermo Guillén eta Michel Queuille musikariekin, eta perkusioetan, hiru harri zilatzaileekin.

###### ***Pez Limbo* Konpainiaren *Harri Orri Ar* ikusgarriaren ko-hedapena**

Donibane Lohizuneko Harriet Baita karpan Akitania Hegoaldeko Eszena nazionalarekin partaidetzan abenduaren 1ean programtua zen IBILKI programaren kari baina Covid izurritearengatik emanaldia ezeztatu da.

###### ➤ *Atabal, Musiken gunea*

CNRS, Atabal eta Miarritzeko Euskara bulegoaren partaidetzarekin, eta Akitania Berriko DRAC-aren sostenguearekin, Euskal kultur erakundeak Euskal Herriko punk eszenari zuzendutako ikerketa egun bat ko-antolatu nahi izan du maiatzaren 23an. Covid izurritearengatik abenduaren 12ra gibelatua izan zen eta ondotik 2021eko urtera.

Versailles eta Bordaleko unibertsitateko CNRS-ek eraman PIND ikerketa proiektuaren baitan (Punk is not dead. Une histoire de la scène punk en France, 1976-2016), kokatu nahi zen ikerketa egun hori mugaren bi aldeetako punk mugimenduak aztertuz euskal punkaren berezitasuna eta nortasuna galdezkatzuz. Parte hartze deialdi bat zabaldua izan zen, 2021ean luzatzekotan dena.

###### ➤ *Malandain Ballet Biarritz Koreografia Zentroa*

Urtero azaroan, Euskal kultur erakundeak sostengatzen ditu « Euskal dantzaren hitzordua » deitu ekitaldiak. 2020an, gertakari artistikoak ezeztatu dituzte.

### 3.1.2. Partaidetzen emendaketa eta segipena Akitania Berrian

#### ➤ **Euskal kulturaren hedapena Akitania Berrian - « Aquitaine.eus » programa**

« Aquitaine.eus » programa 2016ko urtarrilean Etxepare Euskal Institutuak eta Euskal kultur erakundeak sustaturik, eta Akitania-Euskadi Euroeskualdearekin elkarlanean, martxan jarritako proiektu honek helburu hauek zituen:

- Ipar eta Hegoaldeko euskal kultur sortzaileen lanak Akitaniako diziplina ezberdinetako jaialdi eta ekitaldietan erakustea;
- Akitaniako eta Euskadiko kultur sortzaile eta eragileen arteko mugaz gaindiko harremanak eta elkarlana sustatzea.

2017an Nafarroako Kultur Zuzendaritza – Vianako Printzea Erakundea proiektuan sartzeak, euroeskualde mailako lankidetzak kultural honi bultzada berri bat eman zion. 2019an Euroeskualdearekin hitzarmena berritu eta indartzearekin, programa hau euroeskualdearen lurralde berrietara eramateko aukera eman digu, bai Akitania Berrian bai Nafarroan, eta elkarlan hau beste hainbat kultur diziplinetara zabaltzeko aukera ere eskaintzen du.

Hauek dira 2020an programaren baitan burutu ditugun ekintzen laburpena (jakinez ekitaldi zenbait geroratuak izan direla 2021era):

- Joseba Irazoki/Axiari Trio-ren kontzertua Rocher de Palmer aretoan irailaren 30ean
- Polo Garat argazkilariaren « *De la Soule* » argazki erakusketaren ekoizpena
- Sunny Side of the doc-eko euskal zinemaren erakusleiho birtuala ekainaren 23an
- Traversée dantza Konpainiaren egonaldia eta hedapena Bordelen
- Pez Limbo Konpainiaren *Harri Orri Ar* antzezlan Donibane Lohizunen (ezeztatua bainan artisten sostenguz lagundua)
- Koldo Amestoy & Michèle Bouhet-en (Compagnie Trace) *Le caillou dans la chaussure* ipuin ikusgarriaren bi egonaldiak eta hedapena
- Euskal kulturaren gai ezberdinen aurkezteko liburuen ekoizpena

#### ➤ **Baionako Locomotive elkartearekilako partaidetza**

Lehen partaidetza egin dugu elkarte horrekin, gaurko euskal musikak hedatzeko xedearekin. Lehen kontzertua 2020ko urtarrilaren 24ean izan da, Magneto deitu kontzertu-gelan, Joseba Irazoki eta Lagunak & Ekiza musikariekin.

## 3.2. Kultura trukaketak lagundu

### 3.2.1. Mugaz gaineko kultura lankidetzaren segipena

#### ➤ **Partaidetza Gipuzkoako Foru Aldundiarekin**

« Iparraldea bertan » deitu zikloa Donostiako Koldo Michelena Kulturunearekin antolatzen dugu eta urtero, Iparraldeko artistak edo obrak aurkeztzen ditugu.

2020ko martxoaren 3 eta 10ean iragan da (martxoaren 17 eta 24eko kontzertuak geroratuak izan dira, Covidagatik).

- Martxoaren 3an: Etxekopar & lagunak, Barkoxeko Etxahun olerkariaren inguruko sorkuntzarekin
- Martxoaren 10ean: Antton Larrandaburu taldea

Michel Labéguerie, politika gizon, idazle eta musikariaren erakusketa bat ezarria izan da liburutegian.

### ➤ **Partaidetza Donostiako Udalarekin**

Euskal Antzerki Sariaren epaimahai kide gisa EKE eta Donostia Kultura arteko partaidetza segitu egin da nahiz eta Covid izurritearengatik hainbat emanaldietara joateko aukerak gutti izan arren. Soilik Xake Produksioak *Fadoak entzuten zituen gizonak* emanaldia ikusteko parada izan zen Biarritzeko Chimères taldearen egoitzan, taldea egonaldian zelarik. Azpimarratzekoa da emanaldi horrek 2020 urteko antzerki hoberenaren saria irabazi zuela.

### ➤ **Partaidetza Getxoko Udalarekin**

Bi urteetarik, Getxoko Hiriak (eta hango kultura elkarteek) antolatzen du EKE-rekin festibal bat non Iparraldeko hainbat artista gomitatu den (literatura, erakusketa, ikuskizun...).

2020ko edizioa 2021eko maiatzera pusatua izan da, «*Noraezean*» erakusketa berritzailea ez ezik. Erakusketa garaikide honetan, Getxofoto elkarteak lan egin du Jon Gorospe argazkilari eta artistarekin, bai eta ere Xabier Erkizia musikari eta soinuariarekin. Instalazio honek Euskal Herriko paisaiak erakusten ditu, hauetaz ideia eguneratzen duen eta esanahi berria ematen dion begirada batekin. Erakusketa hau aurkeztua izan da lehen aldikoz Getxon (Romo gelan), 2020ko azaroaren 5etik 20era.

### ➤ **Partaidetza Durangoko Azoka antolatzen duen Gerediaga elkartearekin**

Durangoko Azokak bere 55. edizioa ospatu du 2020ko abenduaren 4tik 8ra, baina, osasun krisia dela eta, aurten edizio desmaterializatua izanen da. Ekoizpen guziak (berritasunak eta beste urteetako ekoizpenak) online denda baten bidez salduak izan dira. Ondotik, Gerediaga elkarteak erositakoak erosleen etxera bidali ditu zuzenean.

Azokaren 5 egunak ohiz betetzen duen kultur programazioa ere inpaktatua izan da: emanaldi kopurua ainitz murriztu da eta antolatutako topaketak publiko guttiren aintzinean iragan dira (izen emate sistema batekin, neurri oso zorrotzekin). Usaian ezagutzen ditugun zortzi espazioen ordezkariak aurkezpenak aterbetu dituzte: Landako gunea eta Plateruena.

Durangokoazoka.eus gunean aterbetu dendaren bidez, 2 300 ekoizpen salgai emanak izan ziren.

Euskal kultur erakundea eta Gerediaga elkarte antolatzailearen partaidetzak aurten ere Iparraldeko ekoizpenak argitan emateko parada eskaini du. Egoera berezia zenez, komunikazio alorrean indar bat egitea erabaki da.

Iparraldeko egiturak biltzen dituen aurkezpen bideo bat ekoiztua izan da Kanalduderekin. Haien egituraren aurkezpen bat, berritasun bat erakusketa eta Durangoko azokan parte hartzea zer den galdegina zitzaien parteharzatillei.

Ondotik, 7 minutuko iraupena duen bideo honetatik minutu bateko « pastillatxoak » egin dira egiturara, sare sozialen bidez errexi hedatzen ahal zen euskarri bat proposatuz.

Beste urteetan baino berritasun guttiago aurkeztu bada ere (aintzineko urteetan 50 bat berritasun eramanez ziren Iparraldetik), 38 salgai eman izan dira aurten: 23 liburu, 9 diska eta 3 bestelako ekoizpenak (egutegi, aldizkari, karta). Berritasun guzti hauek Berritasunen katalogo batean bilduak izan dira aurten ere eta sare ezberdinetan hedatua izan da (liburutegi, prentsa...). Oroitarazi behar da katalogo hori tresna bakarra dela urte bateko Iparraldeko ekoizpen gehienak elkartzen dituen.

Aurten, Iparraldetik 10 egiturek parte hartu dute:

- Argitaletxeak: Maiatz, Ikas, Gatuzaín, Zortziko, Matahami & Elkar
- Diskoetxeak: Agorila, Saroia & Belarri
- Bestelako egitura: Iparraldeko Ikastolak
- Autoekoizpenak: Hutsaren Hatsu zigilua, Kalapita produkzioak

Bukatzeko, murrizketak izan badira ere, hiru hitzordu antolatu ahalizan dira Iparraldeko artistekin:

- Abenduaren 6a, igandea – Aguxtin Alkhat « Hutsaren Hatsu » (Hutsaren Hatsu zigilua)
- Abenduaren 8, asteartea – Pantxix Bidart « eHe » (Belarri)
- Abenduaren 6a, igandea – Antton Kazabon *Bartoxeko Olentzero* (Matahami) zuzeneko irakurraldia

Laure Gomez-en marrazkien proiektuekin

Ikusle kopuru oso murriztu baten aintzinean iragan dira aurkezpenak. [durangokoazoka.eus](http://durangokoazoka.eus) gunearen bidez streaming moduan hedatu dira baita ere.

Azkenik, laguntza gehigarri gisa, EKE-ko bi misio kargudunek Iparraldeko egituren ekoizpenak Durangora eramanez dituzte (online dendaren bidez egin erosketen bidalketak handik zentralizatuak izan da). Zerbitzu honek auto bidaiak murriztea permititu du eta mugaren pasatzeak ekarri zailtasunak saihestu ditu. Online denda hetsi ondotik, EKE saldu ez diren ekoizpenen bila izan da baita ere

Edizio berezi honek gastu guttiago eragin ditu egiturentzat (stand alokailurik, garraio eta hotel gasturik ez). Batzuentzat salmenta kopuruak gutti gora behera beste urteetako arabera izan badira, egitura berriagoentzat edo bezerotzarekin harremana ainitz lantzen duten egiturentzat salmenta kopuruak apalagoak izan dira.

### ➤ « **Loraldia** » **festibalekin partaidetza**

Loraldia festibalak eta EKE-k partaidetza iraunkorra sortu dute, arte eszenikoei eta bisualei dedikatu festibal honetan Iparraldeko artistek parte har dezaten. Xuxenaz festibal hau martxo-apirilean iragaiten da bainan 2020ean, udazkenara atzeratua izan da Covidagatik. Halere, EKE-k bi ikuskizun lagundu ditu:

- Urriaren 9an: Mizel Théret dantzariaren *Diagonalean zehar* ikusgarria
- Urriaren 17an: Thierry Biscary musikariaren *Muda* deitu kontzertua

### **3.2.2. Nazioarteko trukaketen garatzea: SOKA-ren bertsio « transatlantikoa »-ren hedapena**

2018ko udaberrian, Montréal-en kokatua den Euskaldunak izeneko Québec-eko euskaldunen elkarteak EKE-ren gana etorri zen, SOKA erakusketaren bertsio egokitu baten sortzearen aukera aztertzeko. Egokitze horren xedea euskal dantzaren aberastasuna lehenik Montréal-en ezagutaraztea da, baina ondotik, ipar Ameriketako beste toki batzuetan ere.

EKE-k Euskaldunak elkarteak eramanen duen proiektu hori sostengatzen du, Québec-eko elkarte SOKA erakusketaren bertsio « transatlantikoa »-ren ekoizlea eta haren hedapen sarearen arduraduna izanen delarik.

EKE lanean aritu da SOKAren kopia sinplifikatu baten sortzeko, informatika garapen lan batzuen bidez. Karia hortara, hiru multimedia postu garatuko dira, erakusketaren edukiak laburbilduko dituztenak. Bi bideo proiektuok eta Gabrielle Duplantier-en « Dantza izpiak » erakusketatik atera argazki batzuek osatuko dute 2020ko irailean Montréal-en aurkeztua izan behar zen instalazioa. Covid-19 pandemiaren ondorioz 2021eko irailera gibelatua izan da.

### 3.3. Kultura aktualitatea baloratu tresna numerikoen bidez

#### 3.3.1. Kultura aktualitatearen balorapena

##### ➤ *EKE-ren eta bere partaideen aktualitatearen promozioa*

EKE-ren aktibitateen albiste hari elebidunak toki garrantzitsua du eke.eus webgunean. Bere helburua lantaldeak egin lana hobeki ezagutaraztea da (programen gidaritzak, sareen animazioa eta egituratzea, memoria kolektiboaren dokumentazioa eta bilketak...). Aktualitate hori hedatua izan da EKE-ren hilabeteroko berripaperaren bidez. Bestalde, berripaper horrek gure elkarte edo instituzio partaideen deialdiak, formakuntza proposamenak eta ekarpen deialdiak biltzen ditu ere. Azpimarratu behar da bi konfinamenduaren garaian informazio zainketa lan berezia egin dugula, gure berripaperaren bidez neurri eta lotura baliagarriak hedatzeko eta elkarteak nahiz kultura eragileak garai gogor horietan sostengatzeko.

##### ➤ *Euskal kulturaren agenda: behin behineko geldialdia*

Kultura eragileek eman datuetatik abiatuz eta euskarri ezberdinetako prentsa bilduma baten laguntzaz, EKE-k egunero ipar Euskal Herri mailako euskal kulturaren agenda osatzen du (mintzaldiak, kontzertuak, animazioak...).

Informazio guzi horiek herriko geolokalizatuak dira: horrela, bildutako datuei esker, urteko kultura ekitaldiei buruzko estatistika batzuk atera daitezke, herri lurralde eremuka, gaika edo denboraldika.

Bi konfinamenduengatik, kultura jarduera azkarki hunkitua izan da 2020ko martxotik goiti, agenda hori eguneratzeko egin indarrak deuseztatuz. Ondorioz, internautek anitz preziatzen duten zerbitzu hori gelditu behar izan dugu 2020ko martxoaren eta abuztuaren artean eta 2020ko azaroaren eta abenduaren artean.

##### ➤ *Ikusgarri aretoen sareko erreperorioa*

Partaidetza hitzarmen bat izenpetuz, EKE eta ikusgarrigintzaren aldeko sostengu teknikoa ekartzen duen Akitania Berria eskualdeko APMAC plataforma beren ahalak eta baliabide teknikoak elkartzeko adostu dira, bereziki Euskal Hirigune Elkargoko baina orokorki ere Akitania Berriko hautetsiek eta kultur nahiz arte eragileek informazio osagarriagoa eta eguneratuagoa ukan dezaten lurraldeko ikusgarri aretoetatik. Lankidetzak hori 2020an hasi dugu APMAC-ek egin areto horien inbentarioaren eta EKE-ren gelen eta kultura eragileen erreperorioaren artean.

## ➤ **Sortzaileen ikuspuntuaren agerian ematea**

2008. urteaz gero, hilabetero [www.eke.eus](http://www.eke.eus) atarian argitaratuak diren « Euskal kulturaren lekukoak » saileko elkarrizketen bidez, hitza ematen zaie tokian tokiko kultura aktualitateko eragileei (97 elkarrizketa argitaratuak gaur arte).

2018an berriro egin da elkarrizketen formatua, sortzaileek beren arteari buruz eta orohar euskal kulturaren orainaz eta geroaz dituzten iritziak eta gogoetak parteka ditzaten.

Bi hilabeteetarik behin argitaratuak dira orain, argazkiz eta bideo batez osaturik. Jasone Iroz kazetari ohiak (Laukitik At) egiten ditu.

2020an sei elkarrizketa argitaratuak izan dira:

- Marko Armspach
- Sabine Cazenave
- Polo Garat
- Antton Larrandaburu
- Maddi Ane Txoperena
- Nahia Zubeldia

Oharra: bideo-lekukotasunak osoki argitaratzen ditugu [www.mintzoak.eus](http://www.mintzoak.eus) atarian, pasartez pasarte.



## **EUSKAL KULTUR ERAKUNDEKO ELKARTE-KIDEEN ZERRENDA 2020AN**

ABOTIA  
ACADEMIE DE LA VOIX  
ACADEMIE RAVEL  
ACCENTS DU SUD  
AEK  
AKELARRE  
ALDUDARRAK  
AMICALE DU PETIT BAYONNE  
ANAIKI ABESBATZA  
ANGELUARRAK  
ANGELUKO IKASLEAK  
ARCAD  
ARGIAN  
ARTEGIA  
ARTEKO ATELIERA  
ARTETXEA  
ASS. DES SYRTES  
ASS. ISTURITZ OXOCELHAY  
ASS. NATIONALE DU POTTOK  
ATELIER  
AU FIL DU THEATRE  
AXUT!  
BAKALAU  
BASAIZEA  
BASQUE EDUCATION ORGANIZATION  
BASQUE ELECTRONIC DIASPORA  
BATCHARTE DANTZA  
BEGIRADA  
BEGIRALEAK  
BELARRI  
BELZUNTZE  
BERTSULARIEN LAGUNAK  
BI'ARTE  
BIARRITZ CULTURE  
BIGA BAI  
BIL XOKUA  
BILAKA  
BILTZAR DES ECRIVAINS DU PB  
BIXINTXO  
BONBON NOIR ET CROTTE DE BIQUE  
BORDELEKO ESKUAL ETXEA  
BORDERLINE FABRIKA

BUNUZTAR XORIAK  
BURGAINTZI DANTZA TALDEA  
CHORALE MIXTE LAPURTARRAK  
CINEMA ET CULTURES  
CINEVASION  
CLARENZA  
DANTZALAI  
DONIBANE KANTUZ  
ELEKA  
ELGAR OINKA  
ELIRALE  
ERROBIKO JOALDUNAK  
ETXAHUN  
EUSKAL ARGENTINA  
EUSKAL HAZIAK  
EUSKAL IRRATIAK  
EUSKAL KANTU TXAPELKETA  
EUSKALTZALEEN BILTZARRA  
EUSKO IKASKUNTZA  
EZIN ASEAK  
EZKANDRAI  
FOYER RURAL DENENA  
FOYER SOCIO EDUCATIF LA CITADELLE  
GARAZIKUS  
GERNIKA  
GETARI ENEA  
GILTZAERA  
GOIZ ARGI  
HAR EMAN  
HARAN UBEL ELKARTEA  
HATSA  
HAURROCK  
HEBENTIK  
HEMENDIK  
HERRI SOINU  
HERRIA  
HITZAMINTZA  
IDUZKILORE  
IKASLEAK  
IKHERZALEAK  
ILDOKA  
ILLCITE CIE

IPARRA HEGOA  
IPARRALDEKO ABESBATZEN ELKARTEA  
IPARRALDEKO DANTZARIEN BILTZARRA  
ITSAS BEGIA  
ITSASUARRAK  
ITZAL AKTIBOA  
ITZULI  
JAKINOLA  
JOSTAKIN  
JOUR DE FETE CIE  
KILIKA  
KIRIBIL  
KONPANY BERITZA  
KORNELIO  
L'ENFANCE DE L'ART EDERTIAREN HAURTZAROA  
LA MAISON SUR LA VAGUE  
LAGUNT ETA MAITA  
LAPURDI 1609  
LATSARRIA  
LAUBURU  
LAUHAIZETARA  
LE PETIT THEATRE DE PAIN  
LES AMIS DU CHÂTEAU FORT  
LES AMIS DU JARDIN BOTANIQUE LITTORAL  
LES JEUNES BASQUES  
LES LABOURDINS  
LES MOISSONS CLOWNS  
LES ORGUES D'URRUGNE  
LIBREPLUME  
LILIA  
LITTORAL BASQUE - ATALAIA  
LURRAMA  
MAIATZ  
MAITA KULTURA  
MALANDAIN BALLET BIARRITZ  
MANEX ERDOZAINTE ETXART KOLEGIOA  
MANEX GOYHENETCHE KULTUR ETXEA  
MARMAU  
MENDI ONDOAN  
MINTZALASAI  
MIRAILA PRODUKZIOAK  
MIXEL LABEGUERIE'REN LAGUNAK  
MUNDUKO MUSIKEN ETXEA  
MUSIKA TRUKE  
MUSIKAS

NANOUA  
OLENTZEROREN LAGUNAK  
OTE LORE  
OTXALDETARRAK  
PASTORE LORE  
PENA DONAZAHARRE  
PINPULKA  
QUARTIER LATIN  
ROUGE ELEA  
SARDE SARDEXKA  
SEASKA  
SO.K  
SOCIETE DES AMIS DU MUSEE BASQUE  
SOINU TTIKI  
SPACEJUNK  
SÜ AZIA  
THE RODEO IDIOT ENGINE  
THEATRE DES CHIMERES  
TRAVERSEE  
TUNTUNA  
TXA  
UPPB - EHUH  
UR BEGI  
URRATSA  
URZAIZ ELKARTEA  
USOPOP  
XARNEGU EGUNA  
XENDA BERRIAK  
XIBEROKO JAUNA ELKARTEA  
XIBEROTARRAK  
ZABALIK  
ZARENA ZARELAKO  
ZARPAI BANDA  
ZAZPIAK BAT  
ZTK  
ZUKUGAILUA

## Rapport du commissaire aux comptes sur les comptes annuels Exercice clos le 31 décembre 2020

---

**Association**  
**« INSTITUT CULTUREL BASQUE – EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA »**

**Château Lota**

**64480 - USTARITZ**

---

(Ce rapport contient 17 pages y compris la présente)



**Rapport du commissaire aux comptes sur les comptes annuels**  
**Exercice clos le 31 décembre 2020**

---

**Association**  
**« INSTITUT CULTUREL BASQUE – EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA »**

**Château Lota**

**64480 - USTARITZ**

---

A l'assemblée générale de l'Association « INSTITUT CULTUREL BASQUE – EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA »,

En exécution de la mission que vous nous avez confiée, nous avons effectué l'audit des comptes annuels de l'association « INSTITUT CULTUREL BASQUE – EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA » relatifs à l'exercice clos le 31 décembre 2020, tels qu'ils sont joints au présent rapport.

Nous certifions que les comptes annuels sont, au regard des règles et principes comptables français, réguliers et sincères et donnent une image fidèle du résultat des opérations de l'exercice écoulé ainsi que de la situation financière et du patrimoine de l'association à la fin de cet exercice.

## **Fondement de l'opinion**

### **Référentiel d'audit**

Nous avons effectué notre audit selon les normes d'exercice professionnel applicables en France. Nous estimons que les éléments que nous avons collectés sont suffisants et appropriés pour fonder notre opinion.

Les responsabilités qui nous incombent en vertu de ces normes sont indiquées dans la partie « Responsabilités du commissaire aux comptes relatives à l'audit des comptes annuels » du présent rapport.

### **Indépendance**

Nous avons réalisé notre mission d'audit dans le respect des règles d'indépendance qui nous sont applicables, sur la période du 01/01/2020 à la date d'émission de notre rapport, et notamment nous n'avons pas fourni de services interdits par le code de déontologie de la profession de commissaire aux comptes.

## **Justification des appréciations**

En application des dispositions des articles L. 823-9 et R.823-7 du code de commerce relatives à la justification de nos appréciations, nous vous informons que les appréciations les plus importantes auxquelles nous avons procédé, selon notre jugement professionnel, ont porté sur le caractère approprié des principes comptables appliqués et sur le caractère raisonnable des estimations significatives retenues et sur la présentation d'ensemble des comptes, notamment pour ce qui concerne l'évaluation des subventions restants à percevoir à la clôture de l'exercice.

Les appréciations ainsi portées s'inscrivent dans le contexte de l'audit des comptes annuels pris dans leur ensemble et de la formation de notre opinion exprimée ci-avant. Nous n'exprimons pas d'opinion sur des éléments de ces comptes annuels pris isolément.

## **Vérification du rapport de gestion et des autres documents adressés aux membres de l'Association .**

Nous avons également procédé, conformément aux normes d'exercice professionnel applicables en France, aux vérifications spécifiques prévues par la loi.

Nous n'avons pas d'observation à formuler sur la sincérité et la concordance avec les comptes annuels des informations données dans le rapport de gestion et dans les autres documents adressés aux membres de l'association sur la situation financière et les comptes annuels.

## **Responsabilité de la direction et des personnes constituant le gouvernement de l'entité relatives aux comptes annuels.**

Il appartient à la direction d'établir des comptes annuels présentant une image fidèle conformément aux règles et principes comptables français ainsi que de mettre en place le contrôle interne qu'elle estime nécessaire à l'établissement de comptes annuels ne comportant pas d'anomalies significatives, que celles-ci proviennent de fraudes ou résultent d'erreurs.

Lors de l'établissement des comptes annuels, il incombe à la direction d'évaluer la capacité de l'entité à poursuivre son exploitation, de présenter dans ces comptes, le cas échéant, les informations nécessaires relatives à la continuité d'exploitation et d'appliquer la convention comptable de continuité d'exploitation, sauf s'il est prévu de liquider l'entité ou de cesser son activité.

## **Responsabilités du commissaire aux comptes relatives à l'audit des comptes annuels.**

Il nous appartient d'établir un rapport sur les comptes annuels. Notre objectif est d'obtenir l'assurance raisonnable que les comptes annuels pris dans leur ensemble ne comportent pas d'anomalies significatives. L'assurance raisonnable correspond à un niveau élevé d'assurance, sans toutefois garantir qu'un audit réalisé conformément aux normes d'exercice professionnel permet de systématiquement détecter toute anomalie significative. Les anomalies peuvent provenir de fraudes ou résulter d'erreurs et sont considérées comme significatives lorsque l'on peut raisonnablement s'attendre à ce qu'elles puissent, prises individuellement ou en cumulé, influencer les décisions économiques que les utilisateurs des comptes prennent en se fondant sur ceux-ci.

Comme précisé par l'article L.823-10-1 du code de commerce, notre mission de certification des comptes ne consiste pas à garantir la viabilité ou la qualité de la gestion de votre Association.

Une description plus détaillée de nos responsabilités de commissaire aux comptes relatives à l'audit des comptes annuels figure dans l'annexe du présent rapport en fait partie intégrante.

---

Bayonne, le 29 mars 2021

**Pour la S.A.S. CAP AVENIR CONSEIL**  
**Commissaire aux comptes**

**Pierre ARANGOITS**

Signé par  
CONSEIL SUPERIEUR DE L'ORDRE DES EXPERTS-COMPTABLES  
Le 30/03/2021



## **ANNEXE**

### **Description détaillée des responsabilités du commissaire aux comptes**

Dans le cadre d'un audit réalisé conformément aux normes d'exercice professionnel applicables en France, le commissaire aux comptes exerce son jugement professionnel tout au long de cet audit. En outre :

- ⇒ il identifie et évalue les risques que les comptes annuels comportent des anomalies significatives, que celles-ci proviennent de fraudes ou résultent d'erreurs, définit et met en œuvre des procédures d'audit face à ces risques, et recueille des éléments qu'il estime suffisants et appropriés pour fonder son opinion. Le risque de non-détection d'une anomalie significative provenant d'une fraude est plus élevé que celui d'une anomalie significative résultant d'une erreur, car la fraude peut impliquer la collusion, la falsification, les omissions volontaires, les fausses déclarations ou le contournement du contrôle interne ;
- ⇒ il prend connaissance du contrôle interne pertinent pour l'audit afin de définir des procédures d'audit appropriées en la circonstance, et non dans le but d'exprimer une opinion sur l'efficacité du contrôle interne ;
- ⇒ il apprécie le caractère approprié des méthodes comptables retenues et le caractère raisonnable des estimations comptables faites par la direction, ainsi que les informations les concernant fournies dans les comptes annuels ;
- ⇒ il apprécie le caractère approprié de l'application par la direction de la convention comptable de continuité d'exploitation et, selon les éléments collectés, l'existence ou non d'une incertitude significative liée à des événements ou à des circonstances susceptibles de mettre en cause la capacité de l'entité à poursuivre son exploitation. Cette appréciation s'appuie sur les éléments collectés jusqu'à la date de son rapport, étant toutefois rappelé que des circonstances ou événements ultérieurs pourraient mettre en cause la continuité d'exploitation. S'il conclut à l'existence d'une incertitude significative, il attire l'attention des lecteurs de son rapport sur les informations fournies dans les comptes annuels au sujet de cette incertitude ou, si ces informations ne sont pas fournies ou ne sont pas pertinentes, il formule une certification avec réserve ou un refus de certifier ;
- ⇒ il apprécie la présentation d'ensemble des comptes annuels et évalue si les comptes annuels reflètent les opérations et événements sous-jacents de manière à en donner une image fidèle.

## Bilan actif

|                                              | Brut           | Amortissement<br>Dépréciation | Net au<br>31/12/2020 | Net au<br>31/12/2019 |
|----------------------------------------------|----------------|-------------------------------|----------------------|----------------------|
| <b>ACTIF IMMOBILISE</b>                      |                |                               |                      |                      |
| Immobilisations incorporelles                |                |                               |                      |                      |
| Fonds commercial                             |                |                               |                      |                      |
| Autres immobilisations incorporelles         | 12 330         | 12 330                        |                      |                      |
| Immobilisations corporelles                  | 417 816        | 396 242                       | 21 573               | 27 088               |
| Immobilisations financières                  |                |                               |                      |                      |
| <b>TOTAL ACTIF IMMOBILISE</b>                | <b>430 146</b> | <b>408 573</b>                | <b>21 573</b>        | <b>27 088</b>        |
| <b>ACTIF CIRCULANT</b>                       |                |                               |                      |                      |
| Stocks et en-cours (autres que marchandises) |                |                               |                      |                      |
| Marchandises                                 |                |                               |                      |                      |
| Avances et acomptes versés sur commandes     |                |                               |                      |                      |
| Créances                                     |                |                               |                      |                      |
| Usagers et comptes rattachés                 |                |                               | 10 041               | 10 748               |
| Autres                                       |                |                               | 179 035              | 151 675              |
| Valeurs mobilières de placement              |                |                               | 7 788                | 7 788                |
| Disponibilités (autres que caisse)           |                |                               | 328 254              | 249 949              |
| Caisse                                       |                |                               |                      |                      |
| <b>TOTAL ACTIF CIRCULANT</b>                 | <b>525 118</b> |                               | <b>525 118</b>       | <b>420 160</b>       |
| <b>REGULARISATION</b>                        |                |                               |                      |                      |
| Charges constatées d'avance                  | 3 963          |                               | 3 963                | 3 903                |
| Charges à répartir sur plusieurs exercices   |                |                               |                      |                      |
| Autres comptes de régularisation             |                |                               |                      |                      |
| <b>TOTAL REGULARISATION</b>                  | <b>3 963</b>   |                               | <b>3 963</b>         | <b>3 903</b>         |
| <b>TOTAL GENERAL</b>                         | <b>959 227</b> | <b>408 573</b>                | <b>550 654</b>       | <b>451 151</b>       |

Legs nets à réaliser :  
acceptés par les organes statutairements compétents  
autorisés par l'organisme de tutelle  
